

DATORRENA

Gizarte kohesioa zalantzan jartzen duen plana auzitan **MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3**

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Oraina uzurtu da, etorkizun gabeko etorkizuna erakutsiz **MIKEL ZUBIMENDI > 11**

2020ko otsailaren 22a | XIV. urtea • 660. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



BERTSOAREN OINARRIZKO KANPALEKU

1.800 LAGUN 259 TALDETAN 112 BERTSO ESKOLAREN BUELTAN. BERTSOLARITZAK BADU TAUPADA EUSKARAREN LURRALDE OSOAN. BERTSO ESKOLEN EMARIA ASKOTARIKOA DA. HIZKUNTZA ZORROZTEKO TOKI ONA DA, LAGUNARTE BIZIA ETA HERRIAN

BERTSOAREN BOZGORAILUA ETA ARNASGUNEA. > **12** Jagoba MANTEROLA | FOKU

**Magrebeko estadioetako
harmailak, haserrez gainezka** 04

**Saudi Arabiatik abiatuta,
basamortuko otiak eragindako
gosetea** 08

**Bertso eskolak, bertsoaren
oinarrizko kanpalekua** 12


**Lehen Eskola Subiranista,
Donostian** 18

**Elkarrizketa: Gotzon Aurrekoetxea,
hizkuntzalaria** 22

Pobreak, baina ez miserableak 26

Sarean 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:**
Gizarte kohesioa zalantzan
jartzen duen plana auzitan
- 10 **Ander Gortazar Balerdi:** «The
mythic landscape (revisited)»
- 11 **Mikel Zubimendi:** Oraina
uzkurtu da, etorkizun gabeko
etorkizuna erakutsiz
- 17 **Amaia Ballesteros**
- 20 **Gorka Zozaia:** Eguzkiari bira
367 biratan
- 21 **Amaia Nausia Pimoulier:**
Nafarroa, Espainiako sortzaileak
- 27 **Joxean Agirre:** Dioxinak
- 27 **Xabier Mikel Errekondo:**
Zaldibar, krimen bikoitza
- 30 **Garazi Goia:** Bizitzako sorpresa
atseginak



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Gizarte kohesioa zalantzan jartzen duen plana auzitan

Frantziako Asanblea Nazionalak azken mende erdiko eztabaidarik garrantzitsuenetarikoari heldu zion iragan astelehenean. Hiru aste, aparteko luzapen edo etendurarik ez bada, iraungo duen prozedurak II. Mundu Gerraren ostean Hexagonoan eraikitako gizarte segurantzaren desagerpenaren hasiera marka dezake. Belaunaldien arteko elkartzunean oinarrituriko sistematik, bere alde on eta muga guztiekin, lanari loturiko esfortzuaren ordainetan, azken urteak duintasunez igarotzeko bermea eskaintzen zien langileei, konfiantzazko katea eraikiz aktiboan ziren langileen eta merezimendu osoz erretretadun estatusa jasotako herritarren artean.

Emmanuel Macronek hitzeman duen sistema berria kapitalizazioan oinarrituko da. Sistema bakarra denontzat, ez ordea eskubideen unibertsaltasunean oinarrituta. Azkenengo bizpahiru hamarkadotan «zorion urteetan» –horrela ezagutzen da Frantzian nazien aurkako okupazioa gainditu ostean heldu zen oparotasun garaia– sorturiko ereduaren «higadura» bilakatu da diskurtso neoliberalaren ardatz. Aurrekontu neurri eta fiskalitate norabide zehatz batzuk indarrean emanez, kultura zaharra pipiak jota izanki bestelako ontzi diseinu bat asmatzeko premia zegoela sinestarazi nahi izan dute gobernuburuek zein administrazioko kudeatzaileek.

Lan merkatua desarautzeko erreformak bata eta bestearen atzean plantan jarri ostean ereduaren jasangarritasun ezaren mantra barreiatu dute, gizarte segurantzaz altxari *vintage* gisa aurkeztuz: ederra bai, baina baliagarria ez. Europa mailan adineko pertsonen artean pobrezia tasarik apalena (%6) du Frantziak. Estatistika aipagarria da, babes sistemaren arrakastatzat har daitekeen adierazle esanguratsua. Baina aspaldi utzi zioten agintariek gizarte kohesioa bermatzeko ezinbestekoa izan den eredu ureztatzeari, beraien ahalegin guztiak sistema

horrek «pribilegiatuen kasta» sortu duela sinestaraztera bideratu dituztelako. Horra hor erabili dituzten ezinbesteko argudioetako batzuk: sistema garestiegia da, herritarren artean diskriminazioak sustatzen ditu, inguruko estatuek zehazturiko bidetik urruntzen da, soldatapekoak bakarrik babesten ditu, mundu zabalean lehiazteko Frantziak dituen aukerak mugatzen ditu... Hots, sistema ez da jasangarria! Are, edonork uler dezake arrazoi xalo batengatik: ile urdindun edo burusoil diren herritar trumilka batek «beranduago hiltzeko kapritxoa» garatu du, hau da, «denon kontura» luzaroan bizitzeko ohitura txarra hartu du. Ideia-toxiko hori gizartearen sektore botereetsuenek garatu eta prekaritatean erabat murgildutako herritarren gainera erori da. Zorionez, kostata bada ere, birusaren hedapena moteltzeko gaitasuna duen harre-

Gizarte berrikuntzaren izenean berdintasun printzipioa alboratzen duen erreformaren eztabaida hasi eta Macronek «separatismo islamiarraren» komodina atera du arretagunea aldatzeko asmoz

sia altxatu da. Gizarte antolatu batek erreforma oztopatzeko dinamika iraunkorra eman du plantan, bide batez, ezkerren marka politikoak, berdin Alderdi Sozialista zein Frantzia Intsumitua, urrunago joatera bultzatuz, orain arte baliatu gabeko blokeo eta konfrontazio eske metara mugiaraziz Legebiltzarrean. Litekeena da, finean, Macronek duen erabateko gehiengoak berak espero baino indar txikiagoa ziurtatzea azkenean, egun ezin baita jada baztertu presidenteak bere erreforma izarra aurrera eramateko botorik gabeko ezohiko prozedura baliatu behar izatea (49.3 artikulua). Estrategia berrosatzeko zailtasunen erakusle, Macronek erlijioaren eta komunitarismoaren komodina atera du. •

AFRIKA

Estadioetako harmailak haserrez gainezka Magreben berriro ere

Casablancatik Aljerrera, Tunisiatik pasata, futbol estadioak gaur egun bere geroarekin kezkatuta dauden gazteen adierazpen toki bihurtu dira. Inoiz baino gehiago. Kirol ikuskizun batekin gozatzeko edo sufritzeko leku izatetik, beren herrialdeetako agintariak salatzen dituzten tribuna bihurtuta daude.

“*F’bladi delmouni!*” esloganak “Neure herrialdean zapalduta” esan nahi du. Aljerian azken bolada honetan egin diren agintarien aurkako manifestazio jendetsuetan milaka lagunek errepikatu dute esaldia, seguru asko hitz horiek nondik sortu diren jakin gabe. Izan ere, Marokoko Casablancako Raja taldearen zaletuek erabili zituzten lehen aldiz harmailetan, ikusle askoren sentsazioak la-

 JENDARTEA / France-Presse

Futbolaren inguruan sortu den protesta modu ez hain berriak «gazteek bizi dituzten zailtasunei buruz asko esaten digu, baita bere haserrez ere», esplikatu digu Abderrahim Bourkia kazetari marokoarrak. «Beraiek gauza guztiak salatzen dituzte eta politika eta kirola baliatzen dituzte horretarako».

burbiltzen baitituzte. Atlantikoko hiri handiko klub ospetsuko jarraitzaileek Ultras Eagles taldearen abesti bat aukeratu zuten estadioan lagunekin abesteko. Youtuben dagoeneko bederatzi milioi aldiz ikusitakoa da. Mohamd V.a estadioan jokatzeko diren partida guztietan, milaka lagunek kantatzen dute, danborren laguntzarekin, bengala artean eta

etxeko taldea animatzeko esaldiekin batera. Abestiak oso gauza gogorak salatzen ditu: «Hodei ilun batean sartuta bizi gara herrialde honetan. Zuek geure ondasunak lapurtu dituzue eta atzerritarrei eman. Belaunaldi oso bat suntsitu duzue».

Abestia 2018an ezustean harmailetan sartu zenean, Abdullah Taia idazle marokoarrak idatzi zuen kanta horrek «su-

tan» jartzen zaituela, «zuhurra baita, benetakoa, inongo apaingaririk gabea».

«Abesti horrek auzoetako milaka gaztek bizi duten egoera adierazten du», esan dio AFPri Khalid talde txuri-berdearen jarraitzaileak, Casablancan partida bat bukatu ondoren. «Eguzkeraren pasan behar izaten ditugun zailtasunak kontatzen ditugu estadioan», arrazoiak ematen dio Ayoub lagunak, lepoan beren taldeko bufanda duela.

Raja futbol taldearena ez da kasu berezia. Marokon, Aljerian eta Tunisian tankerako erantzunak eragiten dituzte gizarteak bizi duen atsekabeak, desberdintasunek, ustelkeriak, askatasun mugatuko espazioek. Estadioetan jarraitzaileek abesten dutenean grabatutako bideoek sekulako arrakasta izaten dute sarean, milioika lagunek ikusten baitituzte. Sare so-

Casablancako Raja taldeko jarraitzaileak (guztiak gizonak) beren futbolariak animatzeko prest, Mouloudia Oujdaren aurkako partidaren ondoren, orain aste batzuk.
Fadel SENNA | AFP



zialetan erabiltzaile batetik bestera pasatzen dira grabazioak eta kasu askotan futbola gustuko ez duten gazteek ere konpartitzen dituzte.

“Libreak eta intsumituak” abestia Casablancako Wydad taldearen jarraitzaileek idatzitakoa da. Rajak hiri erraldoian duen aurkaririk gogorrenak gazteen langabezia eta zerbitzu publikoen pribatizazioa kritikatzeko ditu pieza horretan.

BAIMENIK GABE

Gibraltarko itsasartearen ondoko Tangerreko taldeko zaleek «injustizia» salatzen dute harmailetan. «Itsasontzian eraman nazazue. Lur honetatik salbatu», abesten dute, Europaren atarian.

Futbolaren inguruan sortu den adierazpen modu horrek «gazteek bizi dituzten zailtasunei buruz asko esaten digu,

baita bere haserreaz ere», esan digu Abderrahim Bourkia kazetari marokoarrak, “Zaleak hirian” izenburuko liburuaaren egileak. «Beraiek gauza guztiak salatzen dituzte eta politika eta kirola baliatzen dituzte horretarako». Talde bateko kide diren arren, «beren burua sistematik kanpo ikusten dute eta izaera instituzionalik ez dutela adierazten dute», dio.

Moncef El Yazghi ikerlariaren iritziz, «inolako baimenik behar ez duen protesta modu berria da, politikariek eta beste bitartekari tradizional batzuek beren papera bete gabe uzten dutenean sortutakoa». Konpromiso hori kasu batzuetan harmailetatik kanpo ere iristen da: orain aste batzuk, Raja taldeko jarraitzaile multzo nagusiak Twitter sare sozialaren bitartez adierazi zien «babes osoa iritzia plazaratzeagatik erreinuan atxilotutako guztiei».

Aljerian estadioek hamar-kadak daramatzate herritarren frustrazioen ihesbide lana egiten. 1970az gerotik, protesta horiek kasu batzuetan indarkeriarekin batera iritsi izan dira. Ez da harritzekoa, gazte askorentzat etorkizuna oso ilun baitzegoen orduan, orain dagoen bezala. Adituek diote fenomenoaren 1977an sortu zela, JS Kabylie taldearen jarraitzaileen artean: amazigh edo berbere nortasunaren aldeko abestiak kantatu zituzten.


Bide berean, orain urtebete sortu zen Hirak protesta mugimenduarekin bat egin zuten Aljeriako zale askok. Abdelaziz Bouteflika garaiko presidentearen bosgarren agintaldia saihestu nahian sortu zen fenomenoaren USMA Aljer taldeko jarraitzaileek “Mouradiako etxea” kanta-

«INTERNET BEZAIN GARRANTZITSUAK DIRA FUTBOL ESTADIOAK GAUR EGUN PROTESTA ADIERAZTEKO»

James L. Dorsey blogari estatubatuarrek Ekialde Hurbileko futbol estadioetan gertatzen diren fenomenoak aztertu izan ditu azken hamarkadotan. Bere izena ezkatzea nahiago izan zuen Irango kazetari batek modu honetan azaldu zion eraikin horiek agintearekin haserre dauden gazteentzat duten garrantzia: «Adierazpen askatasunari dagokionez, gaur egungo Iranen futbol estadioak ia Internet bezain garrantzitsuak dira. Bertan protesta egitea seguruagoa da, Poliziak milaka lagun aldi berean atxilotzerik ez duelako. Telebista publikoak partida asko eskaintzen ditu zuzenean eta jendeak bere erresistentzia adierazteko erabiltzen du emanaldia. Kameran aurrean banderak erakusten dituzte eta beren mezuak abestu. Horrexegatik azken bolada honetan partidak soinurik gabe ematen dituzte».

Egipton ere bestelako egoera batekin amesten duten zaleak oso garrantzitsuak izan dira azken urteotan. Begirale batzuek diote «futbol zaleak ekintzaile garrantzitsuak» direla. «Herrialdean herri mugimendurik indartsuena osatzen dute; ia-ia Anaia Musulmanak bezain indartsuak dira». Beste herrialde musulman askotan bezala, Gobernuak hankaz gora botatzeko gaitasuna duen indar bakarria dira futbolzaleak. Hosni Mubarak Egiptoko presidente ohia kargutik kentzeko giza mugimendua futbol zelaietan egosten hasi zela gogorarazten dute analistek.

Arabiar Udaberria izenarekin ezagun egin den matxinada fenomenoaren hasi baino lehen ere, futbola pasioarekin lotuta agertu izan zen. Erlijioarekin alderatzen dute analista batzuek. Pilatutako haserrearentzat ihes-hodi moduko bat da estadioetan garrasika aritzea.





tzen dute, “Paperezko etxea” telesail espainiarreko historia ustelkeria salatzen baliatuta, izen hori baitauka presidentearen jauregiak. Hirakeko manifestariak gehien abesten duten himnoetako bat da gaur egun.

Tunisian, berriz, iraultza egin zuten 2011n eta Ben Ali diktadorea kargutik kentzea lortu zuten, baina aldaketa sakon bat nahi izateko arrazoiak ez dira ia batere aldatu. Harmailek herritarren eskari sozial zein politikoen erresonantzia-kaxa izaten jarraitzen dute. Beren abestiek umorea eta zorrotasuna nahasten dituzte. “*Ya Hyetna*” (“Ene! Geure bizia”), African Winnersena, horren adibide garbia da.

ERREGE USTELAREN FAMILIAREN ALDE OTOITZ EGIN ALA MESKITAKO ATZEKO ALDERA IHES EGIN

Mohamed VI.a Marokoko erregeak arazo ugari ditu herrialdean, baina bere erregimenak beti lortu izan du aurrera ateratzea, maniobra ilunen bitartez kasu batzuetan, eta herritarrek eskatzen dutenaren laurden bat (proportzio bat jartzeagatik) emanda beste batzuetan. Al-Hoceima Rif eskualdeko hiriburuan beste inon baino haserre gehiago pilatu da urteotan eta une batzuetan bazirudien iraultza bera ere ez zegoela urruti. Baina eltzea lehertu baino lehen, Rifeko protestaldietan esku hartzeagatik atxilotutako gazteei indultua eman zien erregeak (Naser Zafzafi ekintzaile ezagunak

espetxean jarraitzen du, hogei urteko kartzela zigorra ezarri baitzioten eta berarentzat ez baitago barkamenik). Aldiz, indultuaren hurrengo egunean bertan, soldaduska berriz ezartzea erabaki zuen erregeak. Milaka gazte derrigorrezko zerbitzu militarra egitera bidalita, gazteen arteko langabezia tasa ikaragarriak behera egingo du eta «marokoar onak» izaten ikasiko dute soldaduek, agintarien arabera. Begirale batzuek bestelako arrazoiak ikusi dituzte soldaduska berriz ezartzeko: Aljeriaren aurkako Saharari buruzko gatazka ezkutua dela-eta, soldadu gehiago behar ditu Rabatek.

Aginteak ezartzen duenari ihes

egitea ez da gauza erraza Marokon. Herritar bat meskitara otoitz egitera joanez gero, erregearen familiaren alde ere egin beharko du. Baina tenplu horietara joaten diren musulmanek beste erresistentzia ariketa bat asmatu dute: meskitaren atzeko aldera joan eta isil-isilik geratu, otoitz egin gabe alegia. «Horrelako gauzak egin behar dituzte, benetako iraultza urruti dago-eta –espikatu zien kazetariei Sofia izeneko ekintzaileak–. Facebooken badago sareko iraultza bat, baina gero kalean ez dago horren arrastorik. Birtuala denez, aldaketa ez zaigu iristen. Baina azkenean dena lehertu egingo da».

GIZONEK SARTZEA DEBEKATUTA DUTE SUDAN ETA SAUDI ARABIako ESTADIOETAN

Ekialderago joanez gero, Egiptoko zaleak ditugu. Arabiar Udaberria indarrean zegoenean, bertako futbol zaleek oso zeregin aipagarria izan zuten. Azken urteotan protesta mota guztiak debekatuta daude Abdelfatah Al-Sisiren lurraldean, eta adierazpen askatasunak ere atzera egin du. Hala ere, iaz Kairo eta Al Ahly taldeen arteko partida bat zela-eta, Gobernuaren aurkako manifestazio txikiak sortu ziren, oso gauza arriskutsua errepresioa nagusi den herrialdean: milaka pertsona atxilotu zituzten, zaletu taldeetako buruak barne.

Marokon, Raja taldeko jarraitzaileek iazko abenduko partidaren baten aurretik salatu zute-

nez, agintariak makina bat zaletu atxilotzeko kanpaina jarri zuten abian.

ESPAINIAKO BANDERAK HARTUTA

Orain bi urte, Tetuan Marokoko iparraldeko hiriko hamalau zaleturi hamar hilabeteko kartzela-zigorra ezarri zieten epaileek Espainiako banderak jendurrean aineratzeagatik: gazte haien helburua Marokoko itsas-armadak tiroka hil zuen ikaslearen kasua salatzea izan zen. Paperik gabe Europara iristen saiatzen ari zen gaztea, uniformedunek tiro egin ziotenean.

Tarik izeneko Raja taldeko jarraitzaile gazteak uste du gaur egun futbol estadioak direla Marokoko herritarrek beren kezka eta nahiak adierazteko lekurik onenak.

Emakumeek arazo ugari gainditu behar izaten dituzte herrialde musulmanetan kirol jarduerara egiten den instalazioetara sartu ahal izateko.

Sudanek eta Saudi Arabiak emakumeen futbol ligak jarri dituzte abian orain hilabete batzuk: gizonezkoek debekatuta dute bertara sartzera eta futbolariak «kirol uniforme egokiak» jantzita aritu behar dute. Sudanen kasuan, lehenengo jardunaldian gizonek estadiora sartzeko aukera izan zuten, baina geroztik ez. Trantsizio politikoa bizitzen ari da Afrikako herrialdea.

Saudi Arabiaren kasuan, emakumeek jolastutako partidak ez dira telebistan eskaintzen eta gizonek ezin dituzte ikusi. Nabarmentzekoa da herrialde horretan emakumeek edozein kirol egitea debekatuta izan zutela 2012da arte.

Qatarren eta Arabiar Emirerri Batuetan emakumei ez zaie estadioetara sartzera debekatzen eta gerrak suntsitutako Iraken,

berriz, emakumeek osatutako futbol taldeak eta selekzioa ere badituzte.

Sirian betidanik ikusi dira emakumeak futbol zelaietan. Beren Liga 2017an berreskuratu zuten, lehiaketa 2011n gerraren eraginez eten ondoren. Ekialde Hurbileko emakumeen lehen futbol taldea Alepo iparraldeko hirian sortu zuten, 1971n, ia mende erdi bat.

Aljerian orain urtebete bidali zuten manifestariak Bouteflika presidentea bere kargutik eta protesta giroa herrialde osora zabandu zen. “F’bladi delmouni!” Marokotik etorritako esloganak “Neure herrialdean zapalduta” esan nahi du eta bertako gazteek bizi duten egoera ezin hobeto deskribatzen du. Hirak izena eman zaio herri mugimenduari eta bertan sekulako garrantzia izan dute emakume tituludunek, mundu osoarekin lotutako aljeriarrek. Tebboune presidente berriari honako mezua bidali diote: «Ezin izango duzu aurrekoek egiten zutena egin».

Ezkerreko orrialdean, segurtasun indarrak beren posizioak hartzen Casablancako Raja taldearen estadioan.

Fadel SENNA | AFP

Tankerako arazoak izaten dituzte gazteek herrialde arabiarretan. Horietako batzuetan protestak etengabe egiten dituzte eta emakumeek gero eta protagonismo handiagoa dute. Eskuineko irudia Beirut Libanoko hiriburuan orain egun batzuk hartutakoa da.

Joseph EID | AFP



SAUDI ARABIA

Basamortuko otiak sekulako gosetea eragiten ari da itsasoaren beste aldean ere

INGURUMENA / joseangel.oria@gaur8.info

Saudia Arabiaren iparraldean kokatutako Jordania eta hegoaldean kokatutako Hego Sudan, asteon beste bi estatu gehitu dira basamortuko otiak («Schistocerca gregaria» da bere izen zientifikoa) kaltetutako herrien artera. Indiako Ozeanoan 2018an izandako bi zikloi daude oraingo leherketaren atzean, adituek esplikatu dutenez.

Asteartean ezarri zuen Jordaniak larrialdi egoera eta gizakioi janaria kentzen digun intsektua hegoaldean iritsi zaio, Saudi Arabiatik hain zuzen ere, Petra berri agentziak emandako informazioaren arabera.

Egun berean nazioarteko agentziek jakinarazi zuten aipatu otiak, Somalia, Kenya eta Etiopiako uztak suntsitu ondoren, Hego Sudanera ere iritsi direla, Onyoti Adigo Nekazaritza ministroak emandako datuen arabera.

FAO Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundeak baieztatu du intsektu migratzaileak suntsitzaileena herrialdera iritsita dagoela eta bere aurkako neurriak hartzen hasiak direla.

Save the Children gobernuz kanpoko erakundeak nabarmendu du basamortuko otien eragina ikaragarri tragikoa izango dela Afrikako estaturik berrienean, 2013an lehertu zen gatazkak populazioaren %60 inguru tripa betetzeko arazoekin utzi baitu, nazioarteko laguntzaren beharrean alegia. Basamortuko intsektu horien izurriak lehen ere gosea pasatzen ari ziren herritarrek kaltetzen ditu batez ere.

Umeei dagokienez, intsektuen izurria hasi baino lehen kalkulatzen zen bost urte bete gabeko 1,3 milioi lagunek desnutrizio akutua pasa behar izango zutela. Egoera berriak kopuru horrek gora egingo du, baina kalkuluak egin gabe daude oraindik.

«Iaz oso lehorte luze eta kaltegarria izan genuen, eta ondoren uholdeak. Milaka lagun beren herriak utzi beharrean izan ziren, etxea suntsitu ikusi ondoren. Eta herrialdea oraindik dardarka daukagu, horrenbeste urte gatazkaren erdian egin eta gero. Basamortuko otien izurria urak gainezka egiteko falta zen tanta izango litzateke», esan du Rama Hansraj Save the Childreneko Hego Sudango zuzendariak.

LARRIALDI EGOERA


Somalian orain hiru aste ezarri zuten larrialdi egoera. «Gizakion eta ganaduaren janariak arriskupean dauzkagu. Oti talde hauek izugarri handiak dira eta landare kopuru ikaragarriak kontsumitzen dituzte», adierazi zien kazetariei Nekazaritza Ministerioako eldun batek.

Afrikako herrialdearentzat apirila da momenturik garrantzitsuena, uzta jasotzeko garaia orduan hasten baita. Said Husein ministroak otsai-



Basamortuko otiak mehatxupearan ditu uztak

Basamortuko otien multzoak oso jatunak dira. Afrikako ekialdeko, Ekialde Hurbileko eta Asiako hego-mendebaldeko eremu zabaletan hedatu dira, milioika lagunentzako elikagaia mehatxupearan jarrita.





150 MILIOI INTSEKTU KILOMETRO KARRATUKO

Kristauen eta musulmanen liburu sakratuetan ere aipatzen dituzte oti izurriak. Ez da fenomeno berria, beraz. Agian, eragin dezakeen kaltearen neurria da ezohikoa, Asia hegoaldean eta Afrika ekialdean inoiz baino gizaki gehiago bizi baita egun. Otiak itsasoa ere zeharkatzen dute haizearen laguntzarekin. Eta orain klima krisiak eragindako zikloi tropikalek bidea errazten diete. Adituen arabera, 2018ko maiatzetik urrira Indiako Ozeanoan sortutako elkarren segidako bi zikloik oso baldintza egokiak utzi zituzten oti ugalketarako: lur hezeak behar dituzte arrautzak jartzeko. Arabiar penintsulako Rub al-Jali basamortuan euri asko egin zuenez, bederatzita hilabete egin zituzten ugalketan. Ondoren ondoko herrietara joan ziren, eta bertan ere inoiz baino giro hezeagoa aurkitu zuten. «Ezohiko urtea izan zen 2019a. Abendu erdialdean atertu egiten du, baina aurten urtarrilean ere euria egiten jarraitu du. Horrek eragin du izurria», azaldu zuen Nairobin Guleid Artan adituak.

Stephen Njokak emandako datuen arabera, kilometro koadro bakar batek 150 milioi intsektu izaten ditu. Eta Nazio Batuek jakinarazi dutenez, «basamortuko otiak Manhattanen neurriko (60 kilometro karratu) taldeak osatuta mugitzen dira». Oti bakoitzak bere pisua (2 gramo) adina landare jaten du. Egunean 150 kilometro egiteko gaitasuna dute.

laren 2an esan zuenez, «izurriaren kontra neurri egokiak hartu ezean, elikagai krisi larriaren atarian egongo gara».

Pakistan Somaliatik oso urruti dago, baina hilaren hasieran intsektu horiek behar-tutako larrialdi egoera ezarri zuten bertan ere. Azken hogeitau urteotan Asiako herrialdeak izan duen izurrik handiena dela esan zuten agintariek. Basamortuko otiak zazpi hilabete lehenago iritsi zitzaizkien, iazko ekainean, Irlandik. Hego-mendebaldeko arto, gari eta kotoi uztak kaltetu ostean, Sindh estatutik barrena Jiber-Pajtunjwa iparraldeko probintziara iritsi ziren matxinsalto handiak.

KLIMA KRISIARENGATIK?

Etiopiak eta Somaliak azken 25 urteotan ezagutu duten oti izurrik larriena da aurtengo. Kenyan egin dituzten kalkuluen arabera, azkenengo 70 urteotan ez dute pareko fenomenorik ezagutu.

Kenyako erdialdean bizi den samburu etniako bi ume basamortuko otiaren aurka borrokan, makil banaren laguntzarekin.
Tony KARUMBA | AFP

Zergatik gertatzen ari da? Begirale batzuek klima krisiarekin lotu dute intsektu horien migrazio suntsitzailea. «Klima aldaketaren efektu kaltegarriek Afrika osoan dute eragina –adierazi berri die kazetariei Makenna Muigai kenyar ekintzaile gazteak–. Ekialdeko oti izurria oso adibide garbia da. Aurki elikagai segurtasun-falta eragingo du. Tristeena da Mendebaleko herriar askok ez dakitela zergatik gertatzen ari den». Berak ez du zalantzarik: herrialde in-

dustrializatuek eragin dute klima aldaketa eta horren ondorioz sortzen dira fenomeno horiek, inoiz ezagutu ez dugun indarrarekin gainera.

Gizakiok itxita izaten ditugun mugak, zabal-zabalik daude basamortuko otientzat. «Tamalez, espezie honek ez du onartzen mugarik eta ez dauka bisatu edo pasaporte beharrik. Mugitzen hasten baldin bada, bide osoa egingo du. Orain Kenyan ikusten ditugun otiak ez datoz Somaliatik, Yemendik baizik», esplikatu zuen orain hilabete Nairobin Stephen Njoka izurriaren aurka lan egiten duen erakunde bateko zuzendariak.

Izurria Arabiar penintsulako hegoaldean hasi zen. Orain zazpi hilabete Etiopiako iparraldean eta Somaliara iritsi zen, ugalketa eten gabe. Kenyara 2019ko azken asteetan ailegatu zen. Ugandako iparraldean ere iritsiko direla otiak uste dute adituek.

«Hego Sudan oraindik ere dardarka daukagu, horrenbeste urte gatazkaren erdian egin eta gero. Otiaren izurria urak gainezka egiteko falta zen tanta izango litzateke»

«Klima aldaketaren efektu kaltegarriek Afrika osoan dute eragina –dio Makenna Muigai–. Ekialdeko oti izurria adibide garbia da. Aurki elikagai segurtasun-falta eragingo du»



Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar
Arkitektoa

«The mythic landscape (revisited)»



Lekuz kanpo dirudien elementu kostunbrista agertzen zaigu hondamendiaren erdian: baserria. Andoni CANELLADA | FOKU

Gure gizartearen kontsumo-gehiegikeriak maldan behera eroriak, figuratiboki eta literalki. Kea ere ikusten da. Begiek kokatu dute hondamendia –etimologikoki ezin zuzenago– eta behertantz doaz, non jada lekuz kanpo dirudien elementu kostunbrista agertzen zaigun: baserria. Mikel Eskauriazaren argazkian bezala, hemen ere badago autobidea baina ez dugu ikusten, (honda)mendiak irentsi egin du eta hezur-haragizko bi pertsonarekin batera.

Zaldibarko zabortegiko lur-jausiak Euskal Oasia esaten zaion bazter miregarri honetako miseria asko laburbil-

Mikel Eskauriazaren argazki bat da «The mythic landscape». Paisaia mitikoa. Atzealdean Anboto ageri da, euskal nortasunaren ikur goren, baina azkar egiten digute ihes begiek argazkiaren erdi-erdian dagoena ikusteko: merkatalgune bat, Eroski bat zehazki, euskal ekonomiaren sinbolo –eta, gehituko nuke nik, azken hamarkadetako lurzoru-kontsumo itzelarena ere bai–. Begiek kokatu dute Eroskia eta lehen planora doaz, non euskal lurralde antolamendua egituratzen duen elementu nagusia azaltzen zaigun: autobidea. Estanpa errealista, Aurelio Artetak koadro bihurtzeko modukoa.

Xabier Gantzarainek galdera egiten du “Zuloa” liburu ezinbestekoan: Jarriko ote luke lehendakari batek, edozein alderditako edozein lehendakarik, Mikel Eskauriazaren “The mythic landscape” argazkia bere bulegoan?

Argazki hura gogorarazi zidan beste bat ikusi nuen prentsan lehengoan. Paisaia mitikoa *revisited*. Atzealdean mendia ageri da, ez gailur mitikorik, ez tontor epikorik; soilik mendia, generikoa, pinudi triste bat eta pinudi izandako hutsune bi, *Lecanosticta acicola* onddoaren eragina seguruenik. Begiek, baina, azkar egiten digute ihes argazkiaren erdi-erdian dagoena ikusteko: luizi bat, zabortegi batena zehazki; zabor-jausi bat, agian hitza ofizialdu beharko genuke.

tzten dituen sentsazio orokortua sumatu dut. Azaltzen zaila den ezinegona sortu zidan niri, gizarte moduan gure buruari sinestarazi dizkiogun mito asko gezurtatzera baltor bezala: euskal paisaia idilikoaren mitoa, kudeaketa onaren mitoa, enpatiarena, lurralde orekatuarena eta garapen jasangarriarena. «Hondakinen arazoa konpondu dugu» baieztapenaren mitoa. Jordi Borjak dio hierarkia sozio-teritorialak areagotu eta eskalaz handitu egin direla, «bikaintasuneko enklabe globalizatuen eta profil baxuko hiri-zatien arteko konbinazio maltzurra» sortuz. Euskal Hiria sutan.

“The Simpsons” telesailaren atal borobil batean –“Trash of Titans” (s09e22)–, Homer hondakinen kudeaketaren buru izendatzen dute. Herrialde osoko zaborra meategi abandonatu batean jasotzea otutzen zaio, egoerak eztanda egiten duen arte: zaborra lurpetik ateratzen da zurrustaka, Springfield osoa estaliz. Aukera hobeagoaren faltan, Quimby alkateak herria lekuz mugitzeko agindua ematen du. Atalaren amaieran Simpson familia azaltzen da berriketan, kamioi batek atarian daraman etxearen atarian. «Hiria lekualdatu dugu, baina Springfield berria izorratuko dugu ere», ohartarazten du Lisak. «Bai, baina... zer egingo diogu bai! Behar banauzue, Moeren tabernan egongo naiz», erantzuten dio Homerrek axolagabe, eskutan zuen patata poltsa hutsa haizeak eramaten duen bitartean. •

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Oraina uzkurtu da, etorkizun gabeko etorkizuna erakutsiz

Ez da soilik Euskal Herrian gertatzen, turboa jarrita duen Mendebaldeko kapitalismo honetan bizi garen gizarte guztietako kontua da. Orokorra. Jendea gero eta azkarrago mugitzen da, eta, hala ere, toki berean trabatuta segitzen duela sentitzen du. Oraina uzkurtu egin da, eta egoera arriskutsua eta frustragarria da. Euskal jendeak sentitzen baitu azkarrago eta gero eta azkarrago korrika egin behar duela, ez etorkizun hobea baten ziurtasunarekin, baizik eta toki berdinean egon ahal izateko. Berdin da zein eraginkor eta azkarrak izan garen aurrean, hurrengo urtean azkarrago aritu beharko dugu, bestela galdu egingo garela. Gure modernitate demontre honen ezaugarria da: ez goaz horizonte argi baterantz korrika, gure bizkarrean den amildegi ilun batetik ihesi gabilta.

Nola demontre esplikatu da hori? Izatez, fenomeno psikologikoa da, baina erro sozialak ditu. Beti presaka eta denbora faltan ibiltzearen sentsazio hori, esango nuke, gure eskura dugun eta gure betebeharrak egitekoak betetzeko beharko genukeen denboraren arteko harremana dela.

Arazoa, euskal gizartearena ere badena, bi denbora horien arteko desadostasun handia da. Egin beharko edo egin nahiko genituzkeen gauzak egiteko egunak 48 ordu izan beharko lituzke. Baina, larriminez lepo, denboraz motz gabiltzala eta azkarregi ihes egiten digula sentitzen dugu.

Pellokeria dirudi baina gogoratu behar da denbora kronologikoa ez doala azkarrago, ezta geldoago ere; egunak 24 ordu izaten jarraitzen du eta urteak 365 egun. Eta, hala ere, gure esperientziez jabetzeko ahalmena galtzen ari gara: gauza pilo bat egiten ditugu egunean zehar baina ez gaituzte hunkitzen, ez dute gure aztarnarik uzten, eta, eguna joatearekin batera, gehien-gehienak ahaztu egiten ditugu. Ez dute gure memorian, biografian edo identitatean arrastoa uzten.

Azelerazio sozial betean bizi da Euskal Herria. Teknologiarekin eta bizitzaren erritmoak beste martxa bat hartzearekin batera, denbora azkarrago doan usteaz gain, gure arteko harremana, munduarekin dugun lotura, problematikoagoa bilakatu da, gure bizitza definituz. Badirudi euskaldun modernoarentzat azkarrago joatea gehiago bizitzea dela, bizitza bukakorren eta heriotzaren aurrean erantzun kulturala.

Azelerazio horrek alienazioa sortzen duela begi bistakoa da, baina, ez dakit, bere baitan, desazelerazioa eta motel bizitzea alternatiba politiko bakar eta eraginkorra ote den. Ezinezkoa ikusten baitut daukagun euskal gizartearen utzita, eskapo egin eta nor bere bide propioan mantsoago joanez arazoa konpontzea. Azelerazio sozial horrek sustrai sakonak baititu: gure herriaren, gure munduaren, muinean dagoen ezaugarri ins-

Gure modernitate demontre honen ezaugarria da: ez goaz horizonte argi baterantz korrika, ez; gure bizkarrean den amildegi ilun batetik ihesi gabilta

tituzionalizatua da. Bizitzeko moduen eta norbanako jarreraren aldaketa beharko da, baina hori baino gehiago ere bai. Munduarekin harremanetan jartzeko bide berri bat. Azelerazioaren ziklotik ez dugu ihes egiterik izango ekonomia aldatu gabe, merkatua eta lehia gure bizitza sozial eta kulturaletan esanahi berri batez hornituta berrezarri gabe.

Gaia serioa eta korapilatsua da. Inplikazio asko ditu. Eta ez dago sinplifikatzerik denbora alde edo kontra ote dugun eztabaida aspergarri eta politikoki antzu horrekin. Hain erraza balitz, dagoeneko jakingo genukeelako euria egiten duenean haizea bustitzen den ala ez, edo ohetik altxatzeko gai ere ez denak nola jaurtiko lukeen harrikada banku baten erakusleihora. •

BERTSO ESKOLAK

1.800 lagun 259 taldetan, bertsoak herrietan dituen oinarrizko kanpalekuetan

📁 KULTURA / Amagoia Mujika Telleria

Ez dira Bertsozale Elkartearen ordezkari, baina bai oinarri. Herriak sortuak, bertso eskolak bertsoan egiteko tokiak baino askoz gehiago dira. Ahozkotasunari lotutako trebetasunak fintzeko lagunartea batetik, herrietan bertsoaren taupada bizirik mantentzeko tokiak bestetik. Orain kontatu egin dituzte: 1800 lagun ari dira 259 taldetan, 117 herritako bertso eskoletan.

Bertsozale Elkar-teak, UPV/EHU-rekin batera, bertso eskolen inguruko datu bilketa bat egin berri du. Bildutako datuek osasun ona erakusten dute, zenbakitan behintzat bai: 1.796 lagun elkartzen dira 117 herritako bertso eskoletan beren zaletasuna partekatzeko. Belaunaldi desberdinak txirikordatzten dira bilgune horietan, 1.300 bat haur eta 430 heldu inguru, 259 talde eta 112 irakasle.

Oihana Iguaranek, Bertsozale Elkarteko Transmisio Saileko arduradunak azaldukoaren arabera, «azterketa kuantitatiboa izan da, huts-hutsik. Lehenengoa izanik, helburua da lau urtean behin edo ziklikoki egitea kontaketa, bilakaera landu ahal izateko. Kasu honetan lehen emaitzek abiapuntua ematen digute».

UPV/EHUko Gizarte Antropologiako ikaslea den Aitana Miner aritu da hilabete pare batean datuak biltzen. Lehen begiratuan, dagoeneko igartzen dira puntak zenbaki horietan.

«Euskararen lurralde osoan daude bertso eskolak. Nabaritzen da euskararen erabilera handiena den gunetan dau-

delat bertso eskola gehien. Baina bertsozalearen parte izan nahi duenak, gutxi edo gehiago, etxetik gertu aukera dauka. Hori da poz handiena ematen diguna», nabarmendu du Iguaranek.

Lehen begiraturik harago, datu horietan sakondu nahi dute. «Bertsozale Elkartearen zehar-lerroak diren generoa, lurraldetasuna eta belaunaldiartekotasuna aztertu nahi ditugu, orekan nola gabiltzan

Haur talde bat bertso eskola batean oinak arretaz begiratzen. Hizkuntza zorrozteko toki ona da bertso eskola.
Jakub SZAFRANSKI | XDZ



ikusi». Ertz horietan denetan etxeko lanak izango dituztela aurreikusten dute gainera.

Zehazki, 1.796 partaide aritzen dira bertso eskolan, 117 herritan dauden 259 taldeetan. Emakumeen eta gizonen kopuruak antzerakoak dira –%49 emakumeak; %51 gizonak–, baina oreka hori erabat hausten da adina tartean sartzen denean. 18 urtetik beharako taldeak aintzat hartuta, %56 dira neskak eta %44 dira mutilak; aitzitik, helduen taldeetan, %30 dira emakumeak eta %70 gizonak.

18 URTE, INFLEXIO PUNTUA

«Inflexio puntu garbia dago. 18 urtetik aurrera asko jaisten da emakumeen parte hartzea. Azterketa soziologikoak antzeko datua nabarmendu zuen. Arkaitz Zubirik plazaratutako datuetan ikusten genuen Eskolarteko garaian, 18 urtera arte, paretsua zela neska-mutiloen parte hartzea. Gainera,

azken urteotan Eskolarteko txapeldunak askotan emakumeak izan dira. Baina, gero, arrakala nabarmen zabaltzen da eta emakumeen presentzia %20ra pasatzen da. Bertso eskolako datuek ere arrakala izugarria erakusten dute. 18 urtetik gora, bertso eskoletan %30era jaisten da emakumeen presentzia. Eta plazan are bortitzagoa da arrakala, presentzia hori %20koa baita».

Zenbakion atzean dauden errealitateak ulertzeko, azterketa gehiago beharko dira, datuok galdera asko pizten baitituzte Bertsozale Elkartearen baitan: «zergatik uzten duten emakume helduek bertso eskola; bertso eskolan elkarteari utziagatik, bertso munduan jarraitzen duten ala ez (eta zaletasunari heldutasunean nola eta zein guneren bidez ematen dieten jarraipena); edota bertso eskoletako ohiko dinamikan zer alda genezakeen, emakumeen parte hartzea sustatzeko».

«Bertso eskolak gune babes- tuak eta konfiantza esparruak diren arren, datuek erakusten dute 18 urtetik gora asko jaisten dela emakumeen parte hartzea. Alegia, oraindik lan handia dago egiteko», nabarmendu du Iguaranek. Hartara, garbi ikusten du Ahalduntze Bertso Eskola bezalakoak beharrezkoak direla.

Bertsolaritza jendartearen parte den neurrian, horren ajeak sumatzen zaizkio. «Bertso eskolak ez ditu bertsolaria bakarrik sortzen; gai-jar-tzaile, epaile, antolatzaile edo besterik gabe horretan goz- tzen duen jendea sortzen da hortik, mugimendu horren parte izan nahi dutenentzat bilgune bat da. Baina bertso eskolako datuak konpara- ginitzake beste diziplina ba-



2007. urtean Aramaioko bertso eskolan jasotako irudia. Juanan RUIZ | FOKU

tzuekin; antzerkia, dantza, musika... jendarte baten barruan gaude. Baina, horren baitan, gure jarrera ez da ukaziozkoa, aztertu eta hausnartzekoa baizik. Zer egin dezakegun gogoetatzekoa».

Eskua altxatzea, jendaurrean hitza hartzea, akatsa egitea, tontakeria bat egitea... normalean gehiago kostatzen zaio neskatoari bertso eskolan bezala ikasgelan eta beste hainbat esparrutan. «Gainera, ahoz gora eta kantuan egin behar du. Paperean egiten diren gauzetan ezkutuago pasatzen dira horiek. Ikasgela ba-

«Azterketa kuantitatiboa izan da, huts-hutsik. Lehenengoa izanik, helburua da lau urtean behin edo ziklikoki egitea kontaketa, bilakaera landu ahal izateko»

Genero arrakala nabaria da. 18 urtetik behera neska-mutikoen presentzia parekoa da, baina 18 urtetik gora, bertso eskoletan %30era jaisten da emakumeen presentzia. Plazan, %20ra

tean ahotsa altxatu behar duzunean, kasu honetan kantuan eta bat-batean, zorrotzu egiten dira exijentzia horiek guztiak eta haragi bizitan sumatzen dira ezinak», esan du Iguaranek.

LEHENGO ETA ORAINGO ERRONKA

Villabonakoak badaki zertaz ari den, umetan eta gaztetxotan bertso eskolan emakume bakarra izan da. «Ni nire taldean bakarra izan naiz urte askoan. Irakaslea zen emakumea, Amaia Agirre. Nire kasuan garbi daukat zein garrantzitsua izan zen Amaia Agirrek ulertaraztea sentitzen nituen oztopo eta ezin horiek denak ez zirela nireak bakarrik, orokorrak zirela, berak ere sentitu eta gainditu zituela. Niri horrek lagundu zidan jarraitzen. Orduan ez nintzen horrekin konturatu, baina gerora bai. Askotan pentsatu izan dut zergatik jarraitu ote nuen bertso eskolan, salbuespen bat banintzen. Gaur egun Harituz bertso eskolan erronka beraren aurrean gaude: mutil askoz gehiago dauzkagu neskak baino. Neskak bertso eskolara erakartzea eta bertan eroso sentiaraztea da gure erronka».

Bertso eskoletako irakasleen datuari ere erreparatu behar zaio; 112 herritan irakasle aritzen direnen artean %19 dira emakumeak. «Irakasle bako-

tzak zenbat talde dituen ez dakigu. Hori ere datu garrantzitsua da».

Bertso eskola mota desberdinak daude. Txapelketa prestatzeko elkartzen dira talde batzuk; sortak abesteko edo saioak antolatzeko egitekoa dute helburu beste batzuek; bat-batean aritzekoa, askok. Gehienak bat-batean trebatzen aritzen diren taldeak eta hasiberrienak dira: 259 taldetatik 125 eta 87, hurrenez hurren.

EUSKARAREN LURRALDE OSOAN

Esanda bezala, euskara osasuntsuago dagoen tokietan ugariagoak dira bertso eskolak, baina arnasmuneetan ere ez da beti erraza bertso eskola bat antolatzea. «Neurri batean baliabideei ere erantzuten die mapa horrek. Azkenean, azpiegitura bat eskatzen du. Batzuetan Elkarreak berak premia bati erantzun nahi dio eta beste batzuetan tokian tokiko eragileek ematen dute bultzada. Baina garrantzitsua da lurraldetasunaren ikuspuntutik mapa horri begiratzea».

Berez bertso eskolak herriarenak dira, herri bakoitzean sortuak. Mugimendu autonomoak dira eta askatasuna daukate beren dinamikak sortzeko. «Baina egia da Elkarreak Euskal Herri mailan egiten dituen lanak beren gain hartzen

dituztela eta erabat beharrezkoak direla. Bertso eskolak antolatzeaz gain, saioak antolatzen dituzte, bilketa lanaz arduratzen dira, tokian tokiko mugimenduekin aritzen dira... Ez dira Bertsozale Elkartearen ordezkariak, oinarria dira. Horiek gabe Elkarrea ez litzateke toki guztietara iritsiko. Pertsona horiek egiten dute posible beren herrian txapelketako saio bat antolatzea, bertsolari-tza existitzea, presentzia bermatzea, santa eskean taldetxo bat ateratzea, saio batzuk izatea herri mailan...», nabarmendu du Iguaranek.


HIZKUNTZA ZORROZTEKO LEKUA

«Ez dut ezagutzen hizkuntza zorrozteko beste lekurik», dio zuzen Oihana Iguaranek bertso eskolaren bertutez galdetuta. «Diskurtsoa egituratzen ikasteko gunea, jendaurreko komunikazioa aurrez aurre lantzeko esparrua. Bertso eskoletan elkartzen zaizkigun gazteek hizkuntzarekin jolastu nahi dute, hizkuntzan trebatutako jendea da. Ikasgela batean ikasle bat zutik jarri eta lehen aldiz bi oin hartu, lotu eta bat-batean zati hori eraikitzen duen unean sentitzen ari dena eta puntako bertsolari batek final batean, jendetza baten aurrean, kantatzen duenean sentitzen duena gertu daude. Ez dira konparagarriak, baina oso gertu daude sentsazio aldetik eta erronka mailan. Bertso eskola sekulako tresna da; hizkuntzaren lanketa, diskurtsoa egituratzeko gaitasuna, dialektikarako gaitasuna, entpatia, kantatzen ikastea, entzuten ikastea pentsatzen duzun bitartean, elkarriketa antolatzen ikastea... Zenbait gairi buruz pentsatzera ere ez ginateke iritsiko bertso eskolatan topatuko ez bagenu».

XABIER AMURIZA

BERTSOLARIA

«Hiru eztabaida nagusi zeuden: bertsolaria jaio ala egin? Euskaldun berriak izan al daitezke bertsolari? Eta, emakumeak?»



Jon URBE | FOKU

1980an jantzi zuen Euskal Herriko txapela lehenengoz. Ordurako Amurizak mahai gainean jarria zuen garaian pitzadura dezente sortzen zituen gaia: bertsolaria jaio ala egin? Lehenagotik ere jendea elkartzen zen taldean bertsotan egiteko, baina modu sistematikoan eta apropos prestatutako materiala erabilita aritu ziren lehen bertso eskolak Xabier

Amurizak bultzatu zituen. 1980 inguruan, txapela irabazi berritan, herri askotan piztu zuen metxa.

Bertsotan egiten ikas zitekeela esan zenuen askok bertsolaritza berezkoa zela, Jaungoikoak emandako aparteko bertute bat zela, esaten zuten garaian. Hautsak harrotuko ziren, noski.

Bai, eta dezente. Nik txapela irabazi nuenean sektore batek muzinez hartu zuen. Ni ez omen nintzeko berezko bertsolaria, liburuko bertsolaria omen nintzen, depositoko ura, ez berezko iturrikoa... Mito hori bazegoen eta gerora ere jarraitu zuen. Bertsotan ikas zitekeen edo ez ika-mika horretan, hiru eztabaida ziren nagusiak: lehena, bertsolariak berezkoa ote zuen dohaina edo ikasi ote zitekeen; bigarrena, euskaldun berriak bertsolari izan ote zitezkeen, eta, hirugarrena, emakumeak bertsolari izan ote zitezkeen. Hiru gako horiek ziren nagusiak.

Eztabaida horien gaineratik, ordurako zuk garbi zenuen norabidea bertso eskolena zela.

Zalantzarik gabe. Ordurako "Hiztegi errimatua" egina nuen eta zabalkundea izan zuen. Niretzat berezkoa izateak ez du kentzen nola egiten den ezin denik esplikatatu. Kontua ez da berezkoa den ala ez, berez gaitasun bat behar duzu, baina ez baduzu lantzen, ez baduzu entrenatzen, ez du ezertarako balio. Nik hori garbi neukan. Beste diziplina guztietan –musikan, artean...– eztabaidatzen ez zen kontua, zergatik eztabaidatzen zen bertsolaritzan?

Nik adibide bezala esaten nuen ni bertsotan txapelduna izatea baino askoz zailagoa zela musikan Mozart edo Guridi izatea. Musikarien kasuan ez da planteatzen berezkoa duten edo ez, noski talentua eduki behar dutela, baina hori landu egin behar da,

ikasketak eta formakuntza behar dira. Bertsolaritzan berdin.

Eztabaida giro horretan ematen zen eta esan bezala hiru ardatz zituen; berezkoa, euskaldun berriena eta emakumeena. Nik hirurak defendatzen nituen, nola ez ba?

Baina bertsolaritzak premia garaia bizi zuen eta horrek lagunduko zuen eztabaida apaltzen, ezta?

Bai. Berezkoa esaten zen horretan giro jakin bati buruz ari ziren; euskaldun giroa, tabernak, erromeriak, sagardotegiak... Ordura arte edonora sartu, bertsoan hasi eta jendeak jarraitu egiten zuen. Baina hori aldatzen ari zen. Gizarte hori bukatzen ari zen eta bertsoa berezkoak zituen gune horiek gabe geratzen ari zen. Beste toki batzuk sortu beharra zegoen, biltzeko eta bertsoan egiteko tokiak. Gizartea aldatzen ari zen eta bertsoak toki propioak behar zituen; bertso eskolak adibidez.

Horrez gain, bertso saioak antolatzen hasi beharra zegoen. Dagoeneko ez zuen balio edonora joan eta bertsoan hastea.

Txapela irabazi zenuenean zure tesiek indarra hartuko zuten.

Bai. Ordurako bazegoen premia bat eta txapela irabazi zenuenean askok pentsatu zuten zerbait irakasteko modua izango nuela. Herri batetik eta bestetik deika hasi zitzaizkidan, ez bakarrik bertsoarako, euskalgintzaren eta kulturgintzaren ingurutik ere interesa piztu zen.

Fenomeno moduko bat sortu zen. Nik ez nuen sortu, ni erdian harrapatu ninduen, askok pentsatu zutelako nik zerbait egin nezakeela.

Herriz herri bertso eskolak ematen hasi zinen eta adin guztietako jendea hasi zen gerturatzen.

Bai, gaztetxoak eta helduak nagusiki. Baina bertso eskolak irekiak zirenez, gogoratzen naiz Eibarren antolatuta genuen bertso eskolara –udalbatza aretoan– 80 lagun agertu zirela, bi dozena haur tartean eta baita 70

urtekoak ere. Ez zen erraza izan hura antolatzea, baina lagunartean eta giro onean topatzen genuen irtenbidea.

Baina normalean haurrak ez ziren agertzen, gaztetxoak bai, 14-15 urtetik gorakoak. Baina horiek zaletasunez eta intentzio batekin gerturatzen ziren eta ez zen inolako arazorik izaten.

Ilusio bereziko urteak ziren.

Bai. 80ko hamarkadako buelta horretan fenomeno orokor bat izan zen, denean zegoen ilusio berezi bat. Frankismotik irten berri, jendea gartsu zegoen euskara bultzatzeko eta berehala sortu ziren bertso eskolak han eta hemen. Lagunarteak, taldeak, ekintzak, euskara praktikatzeko tokiak... gauza asko biltzen ziren bertso eskoletan.

Egindako bidea ikusi eta orain hainbeste bertso eskola eta hain osasuntsu ikusita, zer sentitzen duzu?

Poza, sekulako poza, batez ere garai batean izan ziren hiru eztabaida gako horiek gainditu direlako. Gaur inork ez du zalantzan jartzen ez berezkoa edo ikastearena, ez euskaldun berriena ezta emakumeena ere. Urte gutxitan lan handia egin da. Emakumeen eztabaida gaindituta dago eta euskaldun berriena ere bai; Araban eta Bizkaian baditugu euskaldun berriak diren txapeldunak. Sekulako poza ematen dit gaurko egoerak.

Bertso eskolan ez da bertsoan bakarrik ikasten.

Lagunartea sortzen da, hizkuntza lantzen da, talentua lantzen da, normalean han dabilena idazlea eta irakurlea ere bada, beste saltsa batzuetan aritzen da... Nukleo txiki bat sortzen da eta nukleo horrek ez du bertsoan bakarrik egiten, gauza asko egiten eta antolatzen ditu herrian. Eta adin delikatu samarretan, nerabezaroan, bertso eskolan dabilenaren etxean buru-hauste gutxiago egoten da, neska-mutilak giro jakinean sartzen direlako, lagunarte jatorra izaten da normalean.



Hazteko toki ona da bertso eskola. Baina irakaslea funtsezkoa da, irakasleak ez badauka ganorarik, ez dago zer eginik.

Pozik esan dezakezu arrazoia zenuela.

[Barreak] Tira, ni seguru nengoen bertso eskolak aukera ona zirela. Urte asko pasatu dira eta poza eta harrotasuna ematen dit egin den bideak. Orduan bertso eskolak defendatu egin behar izan nituen eta beti ez zen erraza; joaten nintzen toki guztietan banintzen edo ez nintzen demostratzea nekeza zen. Baina neu ere gazteagoa nintzen, egoskorra ere bai, eta saltsa hartan gogoz defendatzen nituen bertso eskolak, garbi nuelako bidea hori zela. Horrek poza orain ematen dit, orain astia ere badudalako poz horrekin gozatzeko.

Gaur egun ezin da ulertu bertsolaritza bertso eskolarik gabe.

Ezin da ulertu. Gaur egun ez dago baldintza sozialik bertsolaritzaren berezko transmisioa egiteko. Bertsoa berez transmititzen diren tokiak bukatu dira; edonon sartzen bazara telebista dago martxan, futbol partida bat... han ezin zara bertsoan hasi. Erromeriak ere asko gutxitu dira. Amaitu da martxa geldo samar hori, orain jendea aurrera eta atzera bizkor dabil, oso jende dibertsifikatua gara... Beraz, gaur bertso eskolaren antolakuntza nahitaezkoa da bai umeek eta bai helduek praktikatzeko eta garatzeko. Zeharo aldatu da.

Zer moduz bizi zara plazatik aparte?

Oso ondo. Lekuona saria ere eman didate, datorren martxoaren 28an izango da ekitaldia eta, hain zuzen, sari horren motibo nagusia bertsolaritzari egindako ekarpena izan da. Haien esanean erabateko erreferentia izan naiz. Sustoa ere hartzen dut horrelakoak entzunda, baina poza ere izugarria. Orain denbora gehiago daukat horrelakoekin gozatzeko eta gozamina luzatzeko. Oso ondo bizi naiz eta oso pozik.

«Urte asko pasatu dira eta poza ematen dit egin den bideak. Orduan bertso eskolak defendatu egin behar izan nituen eta beti ez zen erraza; joaten nintzen toki guztietan banintzen edo ez nintzen demostratzea nekeza zen. Baina neu ere gazteagoa nintzen, egoskorra ere bai, eta saltsa hartan gogoz defendatzen nituen bertso eskolak, garbi nuelako bidea hori zela»

herria

ARABA:


Aguraingo Bertso Eskola (Agurain)
Amurrioko Bertso Eskola (Amurrio)
Araia Bertso Eskola (Araia)
Aramaioko Bertso Eskola (Aramaio)
Errioxako Bertso Eskola (Oion)
Gasteizko Bertso Eskola (Gasteiz)
Izarrako Bertso Eskola (Izarra)
Kanpezuko Bertso Eskola (Kanpezu)
Laudioko Bertso Eskola (Laudio)
Lautadako Bertso Eskola (Arabako Lautada)
Legutioko Bertso Eskola (Legutio)
Maeztuko Bertso Eskola (Arraia-Maeztu)
Murgiako Bertso Eskola (Murgia)
Zalduondoko Bertso Eskola (Zalduondo)
Zigoitiko Bertso Eskola (Murua)

BIZKAIA

Abadiño Bertso Eskola (Abadiño)
Algortako Bertsolari Eskola (Algorta)
Arrigorriagako Bertso Eskola (Arrigorriaga)
Balmasedako Bertso Eskola (Balmaseda)
Barakaldoko Bertso Eskola (Barakaldo)
Bermeoko Bertso Eskola (Bermeo)
Berrizko Bertso Eskola (Berriz)
Bilboko Bertso Eskolak (Bilbo)
Derioko Bertso Eskola (Derio)
Durangoko Bertso Eskola (Durango)
Ezkerraldeko Bertso Eskola (Enkarterri)
Galdakaoko Bertso Eskola (Galdakao)
Gernikako Bertso Eskola (Gernika-Lumo)
Gordexolako Bertso Eskola (Gordexola)
Igorreko Bertso Eskola (Igorre)
Iurretako Bertso Eskola (Iurreta)
Larrabetzuko Bertso Eskola (Larrabetzu)
Lekeitioko Bertso Eskola (Lekeitio)
Markina-Xemeingo Bertso Eskola (Markina-Xemein)
Mungia Bertso Eskola (Mungia)
Muxikako Bertso Eskola (Muxika)
Natxituko Bertso Eskola (Natxitua)
Ondarruko Bertso Eskola (Ondarroa)
Orozko Bertso Eskola (Orozko)
Portugaleteko Bertso Eskola (Portugalete)
Santurtziko Bertso Eskola (Santurtzi)
Sopelako Bertso Eskola (Sopela)
Sopuertako Bertso Eskola (Sopuerta)
Trapagarango Bertso Eskola (Trapagaran)
Turtziozko Bertso Eskola (Turtzioz)
Zallako Bertso Eskola (Zalla)
Zeanuriko Bertso Eskola (Zeanuri)
Zornotzako Bertso Eskola (Zornotza)

GIPUZKOA

Altzoko Bertso Eskola (Alto)
Andoaingo Bertso Eskola (Andoain)
Anoetako Bertso Eskola (Anoeta)
Antzuolako Bertso Eskola (Antzuola)
Aretxabaletako Bertso Eskola (Aretxabaleta)
Arrasateko Bertso Eskola (Arrasate)
Asteasuko Bertso Eskola (Asteasu)
Beasaingo Bertso Eskola (Beasain)
Bergarako Bertso Eskola (Bergara)
Bergarako Bertso Eskola (Bergara)



Bidania-Goiazko Bertso Eskola (Bidania-Goiatz)
Donostiako Bertso Eskolak (Donostia)
Eibarko Bertso Eskola (Eibar)
Erniarraitz Bertsozale Elkartea (Azpeitia)
Errenteriako Bertso Eskola (Errenteria)
Gabiriako Bertso Eskola (Gabiria)
Getariako Bertso Eskola (Getaria)
Goierriko Bertsozale Elkartea (Goierri)
Hernaniko Bertso Eskola (Hernani)
Hondarribiko Bertso Eskola (Hondarribia)
Ibarrako Bertso Eskola (Ibarra)
Lasarte-Oriako Bertso Eskola (Lasarte-Oria)
Lazkaoko Bertso Eskola (Lazkao)
Legazpiko Bertso Eskola (Legazpi)
Lezoko Bertso Eskola (Lezo)
Lizartzako Bertso Eskola (Lizartza)
Oiartzungo Bertso Eskola (Oiartzun)
Ordiziako Bertso Eskola (Ordizia)
Orioko Bertso Eskola (Orio)
Oñatiko Bertso Eskola (Oñati)
Segurako Bertso Eskola (Segura)
Tolosako Bertso Eskola (Tolosa)
Txingudiko Bertso Eskolak (Irun)
Urnietako Bertso Eskola (Urnietea)
Usurbilgo Bertso Eskola (Usurbil)
Villabonako Bertso Eskola (Amasa-Villabona)
Zaldibiako Bertso Eskola (Zaldibia)
Zarauzko Bertso Eskola (Zarautz)
Zarauzko Bertso Eskola (Zarautz)
Zegamako Bertso Eskola (Zegama)
Zestoako Bertso Eskola (Zestoa)
Zizurkilgo Bertso Eskola (Zizurkil)
Zumaiako Bertso Eskola (Zumaia)
Zumarraga-Urretxuko Bertso Eskola (Zumarraga)

LAPURDI

Angeluko Bertso Eskola (Angelu)
Azkaingo Bertso Eskola (Azkaine)
Baionako Bertso Eskola (Baiona)

Donibane Lohizuneko Bertso Eskola (Donibane Lohizune)
Hazparneko Bertso Eskola (Hazparne)
Hendaia Bertso Eskola (Hendaia)
Itsasuko Bertso Eskola (Itsasu)
Kanboko Bertso Eskola (Kanbo)
Lekorneko Bertso Eskola (Lekorne)
Miarrizteko Bertso Eskola (Biarritz)
Sarako Bertso Eskola (Sara)
Senpereko Bertso Eskola (Senpere)
Urruñako Bertso Eskola (Urruñea)
Uztaritzeko Bertso Eskola (Uztaritze)
Ziburuko Bertso Eskola (Ziburu)

NAFARROA

Altsasuko Bertso Eskola (Altsasu)
Arantzako Bertso Eskola (Arantza)
Arbizuko Bertso Eskola (Arbizu)
Atarrabiako Bertso Eskola (Atarrabia)
Barañaingo Bertso Eskola (Barañain)
Baztango Bertso Eskola (Baztan)
Berako Bertso Eskola (Bera)
Bortzirietako Bertso Eskola (Bortziriak)
Doneztebe Bertso Eskola (Doneztebe)
Elizondoko Bertso Eskola (Elizondo)
Erratzuko Bertso Eskola (Erratzu)
Erroko Bertso Eskola (Erro)

Etxalarko Bertso Eskola (Etxalar)
Etxarri Aranazko Bertso Eskola (Etxarri-Aranatz)
Igantziko Bertso Eskola (Igantzi)
Iruitako Bertso Eskola (Iurita)
Iruñeko Bertso Eskola (Iruñea)
Iruñerriko Bertso Eskola (Iruñerria)
Iturengo Bertso Eskola (Ituren)
Lakuntzako Bertso Eskola (Lakuntza)
Larraungo Bertso Eskola (Larraun)
Leitzako Bertso Eskola (Leitza)
Lekunberriko Bertso Eskola (Lekunberri)
Lesakako Bertso Eskola (Lesaka)
Lizarrako Bertso Eskola (Lizarrar)
Txantreako Bertso Eskola (Txantrea)
Uharteko Bertso Eskola (Uhartea)
Urdiaingo Bertso Eskola (Urdiain)

NAFARROA BEHERA

Donamartiriko Bertso Eskola (Donamartiri)
Donapaleuko Bertso Eskola (Donapaleu)
Larzalgo Bertso Eskola (Larzalbe)
Ortzaizeko Bertso Eskola (Ortzaize)
Oztibarreko Bertso Eskola (Oztibarre)

ZUBEROA

Mauleko Bertso Eskola (Maule-Lexarre)
Sohütako Bertso Eskola (Sohüta)

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia
BALLESTEROS

ESKOLA SUBIRANISTA

Lehen edizioak Estatuko hainbat fundazio subiranista ezkertiar bildu ditu Donostian

📁 POLITIKA / Xabier Izaga Gonzalez

Iragan asteburuan, ostiralean hasita, Donostiako Zuatzuko Iratzar aretoak Lehen Eskola Subiranista hartu zuen. Bertan, Estatu espainiarreko ezkerreko hainbat fundazio subiranistaren ordezkariak beren erronka nagusiei aurre egiteko «proposamen aurrerakoiak» partekatu zituzten “Demokrazia XXI: herri burujabeak autoritarismoari aurre eginez” goiburupean. Eskola Subiranistaren lehenengo edizioa izan da, baina bost urteko ibilbideko bigarren «salto handia». Lehenengo Fundazio Subiranista Ezkertiarren Foroa abiatzea izan zen, Floren Aoiz Iratzar Fundazioko zuzendariak GAUR8ri esan dionez. Hain zuzen ere, Iratzarrek hartu zuen lehendabiziko edizio hau antolatzeko ardura, joan den abenduan Santiago de Compostelan bildu zen Foroan hala erabakita.

Hausnarketa eta analisi dinamika bateratuak sustatzea izan zen Fundazio Subiranista Ezkertiarren Foroaren proiektuaren lehen ideia: «Ekintzarako hausnarketa, noski, baina, batez ere, gaur egun gure gizarteetan gurtzatzen diren aldaketa politiko, sozial, ekonomiko, kultural, klimatiko, ingurumeneko eta teknologikoen azterketa, horiekin aurre egiten saiatzeko».

HELBURUAK, HIRU ARDATZETAN

Eskola Subiranistan, parte hartzaileen gaitasun politikoak hobetzeko, kalitatezko ekintza formatiboa partekatu zuten; baita azterketak, proposamenak eta estrategiak ere, hainbat tradizio eta lurraldetatik etorritakoen arteko konplizitatea ehuntzeko, eta Foroaren izaera azaltzen duen agenda komunikatiboa baliatu zuten ezkerreko subiranis-

Fundazio Subiranista Ezkertiarren Foroak joan den abenduan adostu zuen Lehen Eskola Subiranista egitea. Iratzar Fundazioak antolatuta, hogeita bat fundazio, ikerketa talde zein elkartet hartu dute parte Donostian lehen edizioan, diagnostikoak eta erronken gaineko gogoetak partekatuz. Iratzar Fundazioko zuzendari Floren Aoizek bere balorazioa eskaini dio GAUR8ri.



moa ikusgarri egin eta subiranismo eraldatzailearen proposamenak ezagutarazten laguntzeko. Proposamen horiek elkarrekin garatzeko erronkari aurre egiteko, hiru ardatz jorratu zituzten: bizi dugun garaia ulertzea; Espainiako Erresumaren egiturazko krisia eta eman litezkeen agertokiak aztertzea, eta burujabetza, feminismoa, larrialdi klimatikoa eta emantzipaziorako bide berriak lantzea.

Saioak ostiral arratsaldean hasi eta larunbat gauean amaitu ziren. Igandean, berriz, Iñaki Egaña historialariak gidatutako bisita egin zuten Donostiako Parte Zaharrean zehar.

Zuatzuko Lehen Eskola Subiranistan hamabost talde parte hartzea aurreikusita zegoen: Alkartasuna Fundazioa, Alternatiba Eraikitzen, Ciemen, Iratzar Fundazioa, Ipar Hegoa Fundazioa, Fundacio Irla, Fundació Nexe, Fundacion Galiza Sempre, Fundació Darder Mascaró, Fundación Moncho Reboiras, Fundación Terra e Tempo de Estudios Nacionalistas, Grupo de Estudios Díaz del Moral, Manu Robles Arangiz Fundazioa, Obradoiro da Ideas Lancara eta Poble Lliure; horiez gain, baina, beste zenbait ere izan ziren.

Horregatik, eta oro har Lehen Eskolaren emaitzagarritik, pozik ageri da Aoiz GAUR8k balorazio bat eskatu dionean. Zerbaki batzuk eskaini ditu. Normalean Foroan 13 fundazio, ikerketa talde edo bestelako eragile parte hartzen dutela dio; oraingoan, berriz, 21 bildu dira, gonbidatuta zein begirale gisa, eta 150 lagun inguruk parte hartu dute. «Hau zabalitzen ari da, eta bada gauza bat oso inportantea, gazte jende asko egon izana. Horixe zen helburuetako bat». Oso giro onean jardun dutela eta oso emankorra izan dela dio, «bai

barne elkartasun, saretze eta elkar ezagutze mailan, bai edukietan»; alegia, partekatu dituzten gogoetei dagokienez. Metodologiak asko lagundu diela azaldu du Aoizek, «talde lanari eta parte hartzeari begirako hautua izan delako».

INDAR GILTZARRIA

Urte hauetan elkarrekin zer egin ahal duten pentsatu, diagnostikoak trukatu eta subiranismoaren erronken inguruko gogoetak partekatu dituzte Foroko taldeek. Eta, «jakina, gure arteko elkartasuna sendotu». Lehen Eskola honen amaieran Aoizek esan zuenez, ez ziren elkartu errezeta magikorik bilatzeko eta, horrenbestez, hala-kerik aurkitu ez izanak ez ditu zapuztu behar. «Gure bide orriak etengabe eraiki eta berberaiki» beharra nabarmendu zuen, baita ezkerreko subiranismoa emantzipazioaren aldeko indar giltzarrietakoa dela ere, eta aldaketak ulertu, moldatu eta eskema zaharkituak zalantzan jartzeko gaitasuna erakutsi duela ziurtatu: «Subiranismoa errepublikanoa, feminista, berdinzalea, sakontze demokratikoarekin irmoki konprometitua da, eta horizonte integratzailea eskaintzen du».

Fundazio Subiranista Ezker-tiarren Foroan, jakina, ez da falta indar subiranisten nondik norakoaren gaineko gogoeta. Honela azaldu du Aoizek: «Iraganean baziren bi ikuspegi. Bat, indar subiranistena, herri bakoitzak bere bideari heldu behar ziola zioena, eta beste bat, Estatu eskalako ezkerreko sektoreek defendatzen zutena, Estatu mailako dinamika. Subiranistok ere batzuetan erreparaoak edo eszeptizismoak izan ditugu herri bakoitzetik haratago egin zite-



Estatu osoko ezkerreko hainbat fundazio subiranistaren ordezkariak parte hartu zuten Lehen Eskola Subiranistan, tartean gazte ugari zirela. Eskola Subiranista

keenaz. Hemen planteatzen ari da herri bakoitzaren arabeko estrategia egin behar dela, autozentratua esaten dioguna, baina, era berean, pentsatu behar dugula Estatu espainiarraren aurrean mugimendu subiranistok zertan dugun posible koordinatzea, artikulatzea, konplizitateak lantzea... Orain arteko bidea ikusita bistan da asko dagoela egiteko, iraganean maila horretan egin duguna oso mugatua izan dela, eta Foroak eta eskola honek erakutsi digute aukera bat badagoela. Elkarrekin indartsuagoak garen ideia landu dugu. Gogoeta ez da

deszentratzea, herri bakoitzaren zentratzea baizik, baina, hori hala izanda, gauza asko egin daitezke elkarrekin: partekatu eta koordinatu».

ZERBAIT BERRIA ERAIKITZEKO ASMOA

Halaber, subiranismo emantzipatzaileak ez duela inora itzuli nahi azaldu du Aoizek, euren subiranismoa ez dela ezein iraganekiko nostalgia, zerbait berriaren proiektua baizik: «Beti egon da subiranismoaren kontrako diskurtso potente bat, potentea boteretik datorrelako, normalean iraganera edo globalizazioaren aurreko garaietara itzuli nahi

dugula dioena. Ez da, inolaz ere, hori. Beste zerbait eraikitzen ari gara».

Bestetik, Eskola Subiranista hizpide, fundazioen esparrua alderdi eta sindikatuetatik autonomoa dela iradoki dute nonbaiten eta Aoizek zehaztu nahi du ez daudela alderdiek eta sindikatuek egiten dutenaren menpe, baina «hemen, azken finean, gehienak alderdi edo sindikatuekin lotutako fundazioak edo eragileak gara»; hala ere, argi utzi nahi du, halaber, marko propio bat eraikitzen ari direla. Ba omen dira Foroan daudenen arteko aliantzak, batzuetan elektoralak, «eta orain arte aniztasun horrek gure arteko konplizitateak kolokan jarri ez izana lortu dugu. Gauza bat da maila elektoralean egin daitekeena, eta hori onuragarria izan daiteke, baina gero kapazak gara, nahiz eta sindikatuen, alderdien eta gure artean beste ezberdintasun batzuk izan, gogoetan eta gure arteko esparru honetan bat egiteko».

Estatu espainiarreko ezkerreko hainbat fundazio subiranistaren ordezkariak beren erronka nagusiei aurre egiteko «proposamen aurrerakoiak» partekatu dituzte

Ezkerreko subiranismoak aldaketak ulertu, moldatu eta eskema zaharkituak zalantzan jartzeko gaitasuna erakutsi duela nabarmendu du Iratzar Fundazioko zuzendari Floren Aoizek



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Eguzkiari bira 367 biratan

arkitektura / zientzia / london calling

3 BEGIRADA:


Phileas Foggek ez zion 80 egunetan bira eman Lurrari. Ez bederen 24 orduko 80 egunetan. Lurrari bira ematen zion bitartean, 80 aldiz ikusi zuen eguzkia jartzen, 80 egun zenbatu zituen, baina denbora berean, Londresen zain zituen lagunek soilik 79 aldiz ikusiko zuten eguzkia jartzen, 79 egun zenbatuz. Nola liteke hori? Bada Fogg jaunak ekialderantz egin zuelako Lurraren inguruko bidaia, sortalderantz, Lurraren errotazioaren noranzko berean. Hala, egunero-egunero, Eguzki egunak ohikoa baina laburxeagoak ziren Foggentzat, lantzean behin ordua aurreratuz itzultzen zena bere ordularian. Londresen 79 egun pasa zirenean osatu zuen bidaia beraz, 1.896 ordutan gutxi gorabehera. Aldiz, 80 egun zenbatu zituen Foggek; gutxigatik baina berandu heldu zela pentsatu zuen Londreseko zitara bost minutu berandu heldu zenean. Atsekabeturik, egun osoa Londresen apustua galdu zuela pentsatuz pasa ostean, kasualitatez ohartu zen Lurraren inguruko bidaiaren egun bat irabazi zuela eta doi-doi heldu zen Reform Clubean 08:45ean jarrita zuen zitara, orain bai, Londreseko 80 egun edo 2.020 ordu pasa bertatik irten zenetik.

2020. urtean (zenbakien bitxikeriak) Lurrak zenbat bira egingo ote dituen galdetzen nuen pasa den hilabeteko probleman, eta Foggi gertatutakoaren antzerako zerbait ematen da bertan. Lurrak Eguzkiaren inguruan bira egiten du translazio deritzan mugimenduan, eta, era berean, bere baitan ere biratzen du errotazio deritzan mugimenduan. Bi mugimenduok erlojuaren orratzen aurka dira Eguzki Sistema

iparretik begiraturaz gero (irudiak erakusten duenez). Lurreko puntu batean geldirik egonik, eguna eguerditik eguerdirako tarte gisa definitzen badugu adibidez (hots, Eguzkia punturik altuenean denean, edo, bestela esanda, lurrazalarekiko elkarzuta denean Eguzkiaren posizioa, edo bestela esanda, Eguzkiari zuzenean begiratzen diogunean), erraz ohartuko gara Lurra Eguzkiaren inguruan mugitzen den heinean egunero bira oso bat baino apurtxo bat gehiago errotatu behar duela Eguzkiarekiko posizio berera heltzeko.

Irudian, erloju bat bailitzan, hamabi eguneko translazio hipotetikoaren eskema egin da. Lehenengo eguna pasa denean, Lurrak bere buruari buelta bat eta piko (30 bat gradu kasu honetan) eman behar

dio harik eta Eguzkia posizio berean egongo bada. Egunez egun, desfase hori handituz joango da, edo, bestela esanda, eskema honetako egun bakoitzean 390 graduko errotazioa egin beharko du Lurrak. Translazio osoa amaitu duenerako, hamabi egunen buruan, Lurrak bere buruari hamahiru bira oso eman dizkiola erraz ikus dezakegu. Bada berdin gertatzen zaigu benetako 365 eguneko urtearekin, edo bisurte honetan lez, 366 egunekoarekin. Denbora horretan egunero 360/366 gradu gehiago errotatu behar du Lurrak (ia gradu bat gehiago eguneko), Eguzkiaren inguruko bidaia osoa amaitzean bira oso bat gehituz bere errotazioari. Hala bada, bisurte honetan, Lurrak 367 bira emango dizkio bere buruari. Izan daitezela buruari beste horrenbeste bira emateko bultzada! •



Eguzkiaren inguruan hamabi eguneko translazio hipotetikoaren eskema.

{ koaderno } **Amaia Nausia Pimoulier**

Nafarroak, Espainiako sortzaileak

Aste honetan Madrilgo Erkidegoko lehendakariak *paleto* hitzarekin izendatu ditu leondar, balear edo nafar identitatea aldarrikatzen duten politikariak. Diaz Ayusoren hitzetan «urteetan zehar, herrialde honetako politikari asko paletoarena egiten aritu dira». Izan ere, denok dakigun bezala, espainiar identitate zentraletik aldentzen diren nortasun periferiko guztiak paletoen kontuak dira. Inkesten arabera, Nafarroako biztanleak, gutxienez, honako identitate hauekin identifikatzen dira: espainiarra, nafarra-espainiarra, euskal-nafarra, euskalduna eta nafarra. Antza denez, Ayuso ez da aniztasunaren oso aldekoa eta identitate bakarraz hitz egitea nahiago luke, espainiarra noski.

Eskerrak nafartasunaren defendatzaile sutsuak ditugula gure politikarien artean. Sergio Sayasek, esate baterako, honakoa erantzun dio Ayusori, Nafarroan kide duen PP alderdiko ordezkariari, Twitter bidez: «Komeni da informatzea, edo, gutxienez, hitz egin aurretik pentsatzea. Nafarroak, 1.000 urtez erresuma propioa izan eta Espainiaren sortzaile izan zenak, UPNk Espainiarekiko leialtasunetik sustatzen duen nortasuna du». Eta amaitzen du txioa Espainiako eta Nafarroako ezkutuen argazkiekin, esateko: «Kateak ikusi ez badituzu, ezkutu nazionala utziko dizut».

Arrazoia eman behar diot Sayas jaunari, komeni da informatzea, edo, gutxienez, hitz egin aurretik pentsatzea. Izan ere, Nafarroa Espainiaren sortzaile bezala izendatzeak txantxa dirudi, ezta? Sayasen txioari emandako erantzunen artean irakurri ahal den bezala, «eta baita Polonia Alemania naziaren

sortzaile ere!». Espainiako ezkutuan Nafarroako kateak agertzen badira guda saria izan zirelako besterik ez da. 1512. urtean su ta fuego erresuma konkistatu ondoren garaileek beraien ezkutura gehitu zituzten kateak dira horiek. Gu ez ginen, noski, Espainiako sortzaileak izan; herri konkistatu bat ezin daiteke bere konkistatzailearen sortzaile bilakatu. Gu konkistatuak eta ondoren anexionatuak izan ginen. A ze txiribuelta semantikoak egin behar dituzten Navarra Suman diluitu diren UPNko kideek beren leialtasuna, edo serbilismoa, justifikatzeko.

Sayasen txioak izan dituen erantzun mordoa irakurtzeak, hori bai, poztu egin nau. Orain dela 20-30 urteko diskurtsoek dagoeneko badute erantzun oro-

Arrazoia eman behar diot Sayas jaunari, komeni da informatzea, edo, gutxienez, hitz egin aurretik pentsatzea. Izan ere, Nafarroa Espainiaren sortzaile bezala izendatzeak txantxa dirudi, ezta?

kortu bat eta hori da azken hamarkadan (aurretik ere) errelato anexionista ongi deseraiki dugulako eta masa kritikoa sortu dugulako. 2012. urtean historia-lari, aditu eta herritar asko batu ginen gertakizunen beste kontakizun bat egiteko eta 1512. urtean gertatutakoa ongi azaltzeko. Egun Sayasek botatako astakeria bezalakoek badute erantzuna, konkistaren errelatoa ongi azaldu dugulako eta ez digutelako dagoeneko horren erraz iruzurrik egiten. Eskerrak nafar nortasuna defendatzeko Sayas baino nafar gehiago daudela, gaudela. •

«Ehun urte barru euskalkiak ez dira orain bezalakoak izango, ezta euskara batua ere»

Euskalkien sailkapen berria” izenburuko liburua argitaratu du Eudiak, euskararen bariazioa aztertzen duen EHUko ikerketa taldeak. Sailkapen hori egiteko metodo berri bat baliatu dute, zientzia askotan erabiltzen den metodo bat, hain zuzen.

Luze hitz egin du lan horretaz Gotzon Aurrekoetxea Eudia kide, EHUko irakasle ohi eta hizkuntzalariak GAUR8rekin. Bera da egile nagusietako bat, Iñaki Gaminde, Jose Luis Txipi Ormaetxea eta Xarles Videgainekin batera; edonola ere, Eudia ikerketa taldeko kideen lana nabarmendu nahi du: «Liburu honetan hamar lagunek hartu dugu parte. Dibulgazio lan honen kapitulu guztiak jada nonbait aurkeztuak edo argitaratuak izan dira eta, egia esan, azalean agertzen garenok erantzukizun handiagoa izan dugu, arlo horretan esperientzia handiagoa dugulako, baina emaitza taldearena da, eta ez norbanako batzuenak».

Euskalkien sailkapen berria, metodo berri bat baliatuta.

Esan behar da metodo berri hau ez dela gaur-gaurkoa. Azkenengo ia 50 urteotan erabiltzen da dialektologia kuantitatiboa edo dialektometria eta metodo horrek oro har hizkeren arteko desberdintasunak neurtu eta zenbakietara ekartzen ditu. Horretarako badira distantzia unitate batzuk, hizkuntzalaritzan erabiltzen direnak, eta hizkuntza distantzia horiek aplikatuz datu base batean dauden desberdintasunak zenbakietara pasatzen dira. Ondoren, estatistika erabiltzen da, zer helburu duzun halako teknikak erabiliz.

Zer arazo ditu sailkapen metodo tradizionalak?

Metodologia tradizionalan, edozein analisi egin behar zenean, bazen gabezia handi bat, datuen ezagutza. Gehienek han-hor-hemen biltzen zituzten ezaugarriak eta ez ziren gehiegi izan behar, hain zuzen ere eskuz edo buruz egiten zen analisiak ezin zituelako datu kopuru handiak maneiatu. Metodo tradizionalako sailkapen guztietan datuen halako hautatze bat dago eta, noski, ikertzailak bere irizpideak ezartzen ditu, askotan subjektiboak.

Euskararen Herri Hizkeren Atlaseko (EHHA) datu guztiak prozesatu dituzue?

Dialektometriari edo dialektologia kuantitatiboan datuen hautaketa baztertu eta datu kopuru handiak erabiltzen dira. Gure kasuan, oinarrian EHHAn argitaratutako liburukiak daude, eta datu horiei irizpide batzuk ezarri zaizkie. Besteak beste, diogunaren adierazgarri, irizpide garbi bat izan da galdera batek hamar herritan baino gehiagotan erantzun hutsa baldin badu, galdera hori kontuan ez hartzea; adibidez, oso herri gutxitan bildu izan diren izenak, arrain edo txori izenak, ez dira kontuan hartu, era horretako datuek distorsionatu egiten dutelako sailkapen kuantitatiboa. Beste irizpide bat lexiko berezitu batzertzea da. Edozein elkarrizketatan, bizitza normalean erabiltzen diren kontzeptuak edo hitzak erabili ditugu. Horrez gain, datuen kopurua ere mugatu egin da, ez dira argitaratutako datu guztiak erabili, lagin bat baizik.

Zuentzat funtsezkoa da datuen ordezkagarritasuna.


Hori da. Horra nindoan. Datuek zerbait ordezkatu behar dute. Badakigu hizkuntza bere osotasunean ezin dela bildu; beraz, hizkuntzaren unibertsoa hartu beharrean, lagin bat hartu dugu, baina lagin hori ordezkagarria izan behar da. Gainera, kasu honetan guk hizkuntzaren gramatika eta lexikoa, biak hartu ditugu, eta gramatikan izen morfologia, aditz morfologia, sintaxia eta fonologia; hau da, atal bakoitzean ezaugarri kopuru dezente bildu ditugu, eta horrek atal bakoitzeko hizkuntza sailkapen bat egiteko posibilitatea ematen digu. Honek beste zehaztasun bat behar du: datuak ez dira zuzen-zuzenean EHHako liburukietatik hartu, datuak ez dira kopiatu. EHHako liburukietan datuak fonetikoki idatzita argitaratu dira hizkuntza atlasetan ohikoa den bezalaxe. Gure datutegira biltzean datuak eraldatu egin dira, fonetikoki idatzita argitaratutako datuak ortografikoki idazteaz gain, ahoskerari dagozkion ezaugarriak ezabatu egin dira. Oinarria EHHako argitaratutako informazioa bada ere, bere horretan kopiatu ordez bestelako datuak biltegitatu ditugu. Esate baterako, “dio” adizkia Bizkaian *deutso*, *dotzo*, *otzo*, *dautzo*, *utzo*, *deutzo*... formetan jaso den arren gure datutegian *deutso* forman ezarri ditugu aldaera horiek guztiak. Horrela jokatu da kasu guztietan.

Bestalde, datuak ordezkagarriak izan behar badira ere, hori bezain garrantzitsua da zein herritan bildu diren. Ez da berdina oso herri gutxitan edo herri kopuru dezente batean bilduak izatea. Kasu honetan, 145 herritan bildutako datuak hartu ditugu; beraz, herri horiek ordezkagarriak dira euskararen

GOTZON AURREKOETXEA

HIZKUNTZALARIA ETA EUDIA IKERKETA TALDEKO KIDEA

«Euskalkien sailkapen berria» argitaratu berri du EHUko Eudia ikerketa taldeak. Lan horren eta hiru dialektoko sailkapena eman duen metodoaren gainean mintzo da hizkuntzalari bizkaitarra.



Argazkiak: Luis JAUREGIALTZA | FOKU

bariazio geolinguistiko guztia biltzeko.

Datu guztiek ez dute garrantzi bera, ezta? Izan ere, hizkuntza ezaugarrien hierarkiazio bat egin duzue, elkarren antzekoak direnetatik antzik gutxien dutenetaraino.

Hori da. Gure marko teorikoa deitzen duguna hizkuntzaren sinkronian kokatuta dago, gaur egungo egoeran, eta ez dugu kontuan hartzen hizkuntzaren historia, nola joan den bilakatzeko. Guk hizkuntza sistema bezala hartzen dugu; hizkuntzak baditu ezaugarri sistemiko batzuk eta beste batzuk ez-sistemikoak. Gure datuetan ezaugarri ez-sistemiko horiek baztertzen ahalegindu gara; adibidez, ahoskerari dagozkionak. Gorago aipatu adibidez gain, beste bat: *estrella* nola esaten den euskaran ikusten bada, ba-

«Dialektologia kuantitatiboan datuen hautaketa baztertu eta datu kopuru handiak erabiltzen dira. Gure oinarria Euskararen Herri Hizkeren Atlasean argitaratutako liburukiak dira, eta datu horiei irizpide batzuk ezarri zaizkie»



dira aldaera batzuk, hala nola *ixer, ixér, ixár, íxar, isár, iser, izer, izar...* Lexikoaren ikuspuntutik horiek guztiak berdinak dira guretzat eta denak “izar” forman ezarri dira datutegian. Horiekin guztiekin datu base batzuk egiten ditugu: izen morfologiari buruzkoak, aditz morfologiari buruzkoak... gero alor bakoitzari dagokion sailkapena egiteko, eta azkenik datu base horiek denak batean hartu eta euskarari dagokion sailkapena egin dugu.

Nola zehazten da euskalki arteko muga? Zuen sailkapenak aurrekoen antzik al du?

Aurretik, beste ñabardura txiki bat, nire ustez oso inportantea dena. Hizkeren sailkapena egiteko multzokatze edo kluster analisia deitzen den teknika erabili da. Teknika horren bidez “dendrograma” izeneko irudi

bat lortzen da. Zuhaitz hierarkikoa ere deitzen da. Dendrograma horretan biltzen dira aztertzen diren hizkera guztien artean dauden desberdintasun linguistiko guztiak. Zuhaitzaren enbor puntatik adar puntetaraino dagoen desberdintasuna %100ekoa da. Dendrograma balidatzeko edo zein lekutan moztu behar den aholkatzeko badira teknika batzuk. Kasu honetan %44 desberdintasun linguistiko biltzen diren tokian moztu da dendrograma hori, eta hiru euskalki atera zaizkigu.

Dialektologia kuantitatiboan bada prozedura bat teknika horiek erabiltzeko, eta guk egin dugun hori beste norbaitek egin nahi badu, eskura du informazio osoa datu horiekin edo antzekoekin, teknika horiek edo antzekoak erabiliz, guk egin duguna berresteko edo kontra atertzeko. Beharbada denak ez di-

ra ados egongo euskalki mailari dagozkion desberdintasunen mailaz eta agian egon liteke inor gutxienez %60ko desberdintasuna behar dela esango duenik. Hala balitz, eztabaidatu daiteke, baina betiere datuekin eta teknika zehatzak erabiliz.

Beraz, hiru euskalki: mendebaldekoa, erdialdekoa eta ekialdekoa. Ekialdeko euskalkia deitu dugun hori orain artean euskalki desberdinetan banandua egon da. Gure analisisian ez dago desberdintasun nahikorik euskalki bat baino gehiago dagoela esateko. Erdialdekoan Gipuzkoa sartzen da, mendebaldeko herriak izan ezik, eta Nafarroako guztiak, Luzaide eta Zugarramurdi izan ezik. Eta mendebaldeko euskalkia aurreko sailkapenetako mendebaldeko edo bizkaiera izango litzaiteke, ñabardura bat edo beste izanik, gotor gelditzen dena. Baina hori baino gehiago dakigu. Dendrograma horren arabera, hiru multzo horietatik formatzen lehena mendebaldekoa izan dela ere erakusten digu dendrogramak; beraz, hori da trinkoena, beste bien aldean.

Euskararen berrikuntzak mendebaldean hasi zirela esan nahi duzu?


Gure ikerketa taldea sinkronian ari da, hizkuntzaren egungo aldaerak ikertzen ditu, ez duela zenbait mende izan zitzakeenak. Mendebaldekoa formatu den lehen euskalkia dela diogunean, dendrograman maila apalenean bildu dela esan nahi dugu; hau da, euskalki trinkoena dela, batasun linguistiko handiena duena dela, alegia. Dendrogramak oso argi erakusten du Bizkaiko eta Gipuzkoako mendebaldeko herri horiek sortzen duten batasun edo eremu dialektala ezaugarri propio gehien dituen dela eta hurbil-

tasun linguistiko handiagoa dagoela herrion artean beste multzoetakoen artean baino. Linguistikoki koherenteagoa da, kohesionatuagoa, indartsuagoa, batasun gehiago du.

Koldo Zuazok tarteko hizkerak nabarmendu zituen.

Tarteko edo zubi hizkeren arazoa konpondu gabe dago maila teorikoan, dialektologia teorikoan. Era desberdinetan aztertua izan den arren, orain artean ez zaio aterabide egoki eta asebetekorik eman. Kontzeptu hori nahasia da eta ez dago metodo zientifikorik, orain artean bederen, hizkera bat tartekoa den ala ez zehazteko. Ez dago zehazterik zenbateko desberdintasuna behar duen bateko eta besteko eremuetatik tarteko hizkera izendatzeko. Herri bakoitzeko ezaugarriak hartu eta eremu bateko beste herrietako ezaugarriekin konparatzen baditugu, eman dezagun, %60, %90 edo %30ean etor daitezke bat. Multzokatze metodoarekin ezaugarri horien %51 eremu horretako gainerako hizkerekin bat badatoz, eremu horretan sartzen da. Ezaugarrien %51 dituen esan daiteke tarteko hizkera dela, baina non amaitzen da tarteko hizkeraren ezaugarri komunaren portzentajea? %40 dituen tarteko hizkeratzat hartu behar da? Eta %30 dituen?

Gure taldea horretan ari da, dagoeneko ikerketa bi plazaratu ditu horri buruz, baina egia esan, oraintsu sartu gara horretan, usteetatik urrunduz benetan konprobatu daitekeen metodologia erabiltzen ari gara, beste zientzietan egiten dituzten sailkapenak begiratzen, halako objektu batzuk agertzen direnean, zein koka daitekeen batean eta zein bestean eta nola kokatzen dituzten, zer parametro erabiltzen dituzten multzo



batean sartzeko eta ez bestean. Baina oraindik behin betiko daturik ez dago.

Euskalkiak berdinduz doazela diozue.

Bistakoa da. Beste hizkuntzetan ere gertatu da hori. Eredu estandar indartsu bat sortzen denean, horrek batetik besterako hurbiltasunen fenomeno bat sortzen du. Euskal Herrian ere badaude gai honi buruzko hainbat lan, nibelazio edo berdintze fenomenoengururak. Oraintxe bertan gure ikerketa taldeko kide bat ari da horri buruzko tesia egiten, hain

«145 herritan bildutako datuak hartu ditugu; beraz, herri horiek ordezkagarriak dira euskararen bariazio geolinguistiko guztia biltzeko»

zuzen ere. Eudia ikerketa taldeak baditu bi belaunalditako datuak bilduta, eta EHHA proiektuak hirugarren belaunaldi batekoak; beraz, eskura ditugu euskarari buruzko hiru belaunaldiren datuak. Eta ikertzen ari gara non dagoen euskara batutik hurbiltasun gehiago eta non gutxiago, zein hizkuntza ezaugarri diren gehien hurbiltzen direnak eta zein gutxien. Garbi dago hurbilduz doazela, baina jakin behar da zer erritmotan doazen, non gertatzen den gehien hurbiltze prozesu hori, non azkarren eta zein ezaugarri diren errazen hurbil-

tzen direnak. Euskalkian arituz ere euskara batuko ezaugarriak sartzen dira. Zein ezaugarri sartzen dira gehien, eta non? Hauek eta beste galdera batzuk erantzunaren zain ditugu.

Zenbait lekutan euskalkia baino ez erabiltzeko joerarik al dago?

Oso zaila da mundu guztiaren sostengua duen eta ikaragarriko baliabideak dituen eredu baten kontra, sistema baten kontra joatea, eta hizkuntzan gauza berdina gertatzen da. Ezaguna da halako mugimendu batzuk sortu direla euskara batuaren presioa gehiegizkotzat hartuz eta tokian tokiko ezaugarriak galduko diren beldurrez, halako mugimendu serio batzuk sortu dira. Nik ontzat ematen ditut, baina ez dut euskara batuarentzako arriskurik ikusten, inondik ere ez. Behin forma idatzia gailentzen denean, komunikabideetan sartzen denean, administrazioa duenean, ikaragarriko indarra hartzen du eta ez da galduko, hizkuntza bera galtzen ez bada. Orain, belaunaldi gazteek edo ez hain gazteek gehiegikeria batzuen kontra gune batzuk sortzea, beraientzat sanoagoak, naturalagoak direnak, oso-oso positiboa da, eta hizkuntzaren bizigarritasunaren adierazgarri. Hori ez balego, hizkuntzaren osasuna, nik uste, ez litzateke oso ona izango.

**Beraz, onuragarria da batua-
rentzat berarentzat?**

Bai, zelan ez, azken batean, batetik, batua berez sortu zen helburu formal horretatik urrunago joan da, eta, bestetik, egoera informaletan guztiz urrun gerta litezkeen fenomeno batzuk ere agertzea behar da.

Diozunez, ehun urte barru ere izango dira euskalkiak.

Orain bezalakoak, ez. Euskara batua edo estandarra ere ez delako berdina izango. Hori garbi dago. Hizkuntzaren barne-barneko ezaugarria da aldagarritasuna, eta bizi den bitartean aldatuz joango da. Norantz? Hor faktore asko dago, oso zaila da iragartzea, baita zein abiaduraz joan daitekeen ere. Faktore sozial pila bat dago eta faktore horiek izugarritzko eragina dute hizkuntzaren izaeran. Guk, nazioartean ibiltzen garenean, ikusten dugu duela 300 edo 400 urte batasuna zuten edo lortu zuten hizkuntzetan oraindik bariazio geolinguistikoa eta soziolinguistikoa, biak lantzen ari direla. Beraz, lasaitasun handiz esan behar dugu euskalkiak izango direla. Bariazio geolinguistikoa izango da, lekuaren arabera, eta hiri handietan gero eta bariazio handiagoa sortuko da faktore sozialen arabera.

Soziolektoak sendotu eta ugarituko direla diozue. Londresen, oker ez banago, eta beste zenbait hiritan azertu dituzte. Maila sozialak eragina du? Ikaragarria. Nik ez dakit Londres munduko lekurik egokiena den soziolektoak ikertzeko. Hain zuzen ere, hiri kosmopolita da, hizkuntza gehiegi daude bertan, eta kanpo hizkuntzen elkarreraginak daude. Niri asko gustatzen zait Kopenhageko kasua. Badago ikerketa talde handi bat, aspaldi horretan ari dena. Kopenhage hiriko ereduak gainerako bariazio dialektala ezabatu egin du eta bertan bada halako faktore sozialen araberrako bariazio bat. Edo hezkuntza, edo lanbidea, edo auzoaren prestigioa edo maila... Hau da, maila sozialen arabera, ikaragarritzko bariazioa sortzen da... Euskararen kasutik ikaragarritzkoa esatea urrun joatea da, guk bariazio handia daukagulako,

«Behin forma idatzia gailendu denean, komunikabideetan sartu denean, administrazio duenean, ikaragarritzko indarra hartu du euskara batuak, eta ez da galduko, hizkuntza bera galtzen ez bada»

baina bada bariazioa eta beraien artean erraz identifikatzen dute nolako maila sozialekoa den bata edo bestea, hitz egiten entzunez bakarrik.


Euskaldun berrien eta zaharren artean desberdintasun nabariak omen daude prosodiari dagokionez. Eta oro har? Prosodian ikaragarritzko aldaketa gertatzen ari da, inolako araurik gabe, gainera, bitxia da oso. Inork ez du araurik eman azentuan, adibidez, eta ezberdintasun handia sortzen ari da berrogei urtetik beherako jendearen eta zaharren artean. ETBko esatari zenbaitzuek ere azentuazio desberdina dute, oso sistemati-zazio handiarekin. Belaunaldi zaharrek bazituzten hitz batzuk azentuatuak eta beste batzuk azentuatu gabeak, eta abar; orain dena sistematizatuz doa.

Helduen eta gazteen arteko desberdintasunei dagokionez, azken batean hori da hizkuntzaren bilakaera, ez?

Hori da. Liburuan agertzen denez, erabili diren datuak 1987tik 1992ra bitartean bildu ziren; hau da, guk erabili genituen informatzaileek orain 100 urte baino gehiago eduki behar lituzkete batez beste. Horrek esan nahi du haien hizkera dagoeneko ez dela kalean entzuten. Hizkera mota horren oso antzekoa egiten dute 60tik gorakoek, ezaugarri batzuk aldatu badira ere. Hurrengo belaunaldiarena desberdinagoa da. Hain zuzen ere, euskara batua entzun edo ulertu ere egin ez zuten horiek dira guk erabili ditugun informatzaileak, eta gaur egun berrogeitik beherakoak euskara batuan hezi dira; beraz, kontraste ikaragarria dago.

Esan duzu ez duzula batuaren eta euskalkien arteko gatazkarik sumatzen.

Nire ustez ez da gatazkarik; hain zuzen ere, nazioartean, hizkuntza denetan agertzen dira eredu estandarra eta eredu dialektalak, eta inon ez dago talkarik. Talka esaten dugunean, zer da? Interesatzen zaigula krisia egotea edo liskarra sortzea? Interesaturen bat egon liteke, agian. Eta, bestalde, nor ari da talka hori dagoela esaten, balizko talka hori indartzen? Sarri, euskaraz egiten ez dutenak, askotan euskara ez dakitenak dira horretaz mintzatzen direnak. Hainbat lekutako jendearekin harremana daukat, eta inoiz ez gara aritzen forma estandarra erabiltzen dituztenen eta forma dialektalak erabiltzen dituztenen arteko talka, eztabaida edo egonezinaz.





Juanan RUIZ | FOKU



IKUSMIRA

POBREAK, BAINA EZ MISERABLEAK

Zenbatetan ez ote dugun aditu etxean pobreak garena, baina ez miserableak. Bai, bi jende klase desberdin dira. Urkulluk lehenengoz Zaldibar-ko tragediaz hitz egin zuenean -kazetari baten galderei erantzunez-, ez genuen enpatia zipitzik sumatu haren hitzetan; amorrazioa bai, herriaren errieta jaso duen agintariaren amorrazioa, nagusikeria. Eta oso garbi utzi zuen zabor azpian harrapatuta daudenak eta bera ez direla klase berekoak, bera ez baita lan-istripuetara gerturatsen eta berak ez baitu Twitterren erritmora dantzatsen. Kalean arnasten den kezka eta tristuraren gainera hitz egin zuen, bizpahiru eskailera maila gainera. Gerora saiatu da eskaileran beheraxeago jaisten, baina bere sinesgarritasunak pitzadurak ditu, Zaldibarko zabortegeak bezala. Autokritika, akatsa eta horrelako hitzak ere zartatuta ateratsen zaizkio ahotik. Egi-
barrek «miserable» deitu die oposizioko kideei, Lakuako Gobernuaren zartaduretan eta zaurietan gatzak bota dutelakoan. Aspaldi ez nuen «miserable» hitza entzun eta etxeko esan harekin akordatu naiz; gu pobreak gara, baina ez miserableak. Pobreak gara eta badirudi pobre izaten jarraituko dugula, kiratsa darion sisteman eskailera maila hau egokitu zaigulako. Errazago sartzen gara zabor azpian harrapatuta dauden lan-
gileen azalean, erabakiak hartzen dituzten gorbatadunen azalean baino. Ez, ez gara miserableak. Amagoia Mujika Telleria

Dioxinak

Joxean Agirre

Klima aldaketaz hitz egiten dugu edo larrialdiaz adierazpenak izenpetzen eta ez gara gauza zabortege bat kontrolatzeko. Klimaren patua ezin dugu erabat eta osorik kontrolatu, neurri batean eguzkiaren baitan dagoelako, izar horren aktibitateak baldintzatzen duelako gure planetaren tenperatura. Bertako su lamadak eta gas leherketak ikusgarriagoak dira nonbait fase batzuetan besteetan baino. Hori da behintzat gaztetan Geografian erakutsi zidatena.

Harrokeria iruditzen zait eguzki sistemaren barruan ludia den txikiarekin klimaren geroa osorik gure esku dagoela pentsatzea, baina airearen, uraren eta luraren kalitatea eta oro har eguratsaren eta ludiaren osasuna gure esku dago eta horren kontzientziak seku-

lako jauzia eman du oso denbora gutxian.

Zenbat aldiz ez ote dugu eztabaidatu Gipuzkoako Bilduko kideok Bizkaikoekin zaborren auzia dela-eta. Aldundia galdu izana aurpegiratzen ziguten zaborren gorabehera horrekin. Zabor domestikoen bilketa eta tratamendua kontu hutsala zela frogatu nahi izaten ziguten, baina ez gintuzten erabat kontentzitzen, «bai, baina etorkizunean kontu hau garrantzitsua izango da», erantzuten genien. Geroztik, gazteen artean batik bat, kontzientzia ekologikoak aurrera egin du eta zaborren tratamendu integralak eskakizun bihurtu direla esango nuke.

Hitz egin dezagun gutxiago klima aldaketaz eta has gaitezen etxetik hasi eta azken industriarainoko zaborrak kon-

trolatzen. Ozonoan eragiten ditugun zuloak arriskugarriak dira, noski, baina arriskugarriak dira halaber gure mendietan antolatu diren “zulo beltzak”, zeinetan edozer gauza botatzen dugun.

Baserrri batean jaiotzen ginenok aukera bikainak galdu ditugu aberasteko. Bizkaian izanda areago. Nik jabetzan egokitu zitzaidan lursailean 1.500 pago sartu nituen orain hogeitun urte eta poemak idaztera dedikatzen naiz. Ez nintzen nonbait dirua egiteko jaiotzen. Nire poemak zakarrontzira botatzen ditut, handik Zubietako erraustegira iritsiko dira eta zer pentsatua ematen dit Markel Olanok jarri dituen filtro miresgarriari esker dioxina arin bihurturik, Usurbilen, Lasarten eta Hernanin maitatutako pertsonengana iritsiko direla jakiteak. •

Zaldibar, krimen bikoitza

Xabier Mikel
Errekondo

Zaldibarkoa krimen bikoitza izan da, diru arpilatze asezinak eta axolagabekeria politikoak eragindako langile biren iragarritako hilketa eta ingurumen krimena. Azkenean gertatu egin da, Zaldibarko zabortegea goitik behera jauzi da eta azalera irtendako ustelkeriek enpresa bezala Jaurlaritza dute harrapatu.

2011tik ia egunero tonaka zabor toxiko jauzi badira zabortegeak baimenik ez izan arren, jarduera arriskutsuen kontrolerako betebeharra duen Jaurlaritza-ko Ekonomia eta Industria Saila enpresaren jardute axolagabearen konplize kontziente izan da nahitaez. Zaindariak,

Jaurlaritzak, ez du bere lana egin, ez ditu herritarrak zaindu. Horixe agerian gertatu zen bihamunean Ondare Natural eta Klima Aldaketarako zuzendari Aitor Zuluetak adierazi zuenean zabor arriskutsurik ez zela pilatu Verter Recycling enpresak txostenean horrela adierazia zuelako. Verterrek egin ditu bere jardueraren kontrol txostenak?

Zaldibar aire librean dagoen erraustegia da: eraiki lau horma, margotu berdez eta altxa tximini luzzze bat dioxinak eta furanoak kanporatzeko eta Zubietako erraustegia bera izanen da.

Zaldibarren nola, gezurrekin iraindu egiten gaitu Gipuzkoako Aldundiak 24

orduz eta 365 egunez erretako zaborren ke toxikoak kanporatuko dituen tximiniari “berria” hitza erantsita haurrek osasun arazorik ez dutela izango “El Diario Vasco” egunkariaren pulpitutik etengabe listukatzen digutenean.

Gipuzkoako ahaldun nagusi zaren horri, Markel Olano jauna, ez jarri martxan Zubietako erraustegia, badakizu eta bestela Gipuzkoako baratzak, etxeak eta eskolak dioxina eta furanoz blaituko dituela eta, bai ala bai, eragingo lituzkeen krimenen erantzulea zu zeu izango zarela.

Osasunak ez du preziorik eta nehorik ez du inorena akabatzeko eskubiderik. •

> Romanoren testigantza, European zehar



Andoni CANELLADA | FOKU

2001ean gertatu zen, baina Unai Romanok komisariatik igaro ondoren zuen aurpegi deformatuaren irudia Euskal Herriko torturaren kontrako ikur da oraindik ere, eta haren lekukotza inoiz baino gehiago ibili



da European zehar, euskal kontu batek abiatu eta eta Carles Puigdemontek zabaldu duen hari batean.

Otsailaren 13a Torturaren Aurkako Eguna da, Joxe Arregiren heriotzaren urteurrena.

Aurten, gaitz horren zabalkundeak oihartzun handia izan du nazioartean, batez ere Unai Romanoren lekukotza jasotzen duen tuit-hari bati esker, Igor Goikoleak zabaldu eta erbestean den presidente katalan legítimoak birtxiokatu baitzuen. Bere mezuan, Puigdemontek lekukotza azken tuitera arte irakurtzera animatzen du, eta Romanoren kasua –«munstro-tasun hori»– EBren erdi-erdian eta polemikarik sortu gabe gertatu zela azpimarratzen du.

Lekukotza osoa NAIZen argitaratu zen 2002ko otsailean.

Kasua zigorrik gabe geratu zen, Estatuako Segurtasun Indarrek Gasteizko gaztearen aurpegi deformatua ate batekin egindako kolpe baten ondorio izan zitekeela esan ondoren. Izan ere, Euskal Herrian kondena irmoa jaso zuen azken tortura kasua 1992koa da.

2018an, Kataluniako beste ordezkari independentista batek, Gabriel Rufianek (ERC), Romano torturatuaren irudia erakutsi zuen, eta haren testigantza zati bat irakurri zuen Kongresuko tribunan.



> «Maravillas»: Broken Brothers Brass Gorka Urbizurekin

Berri Txarrak taldearen “Maravillas” kantu ezagunaren bertsio bat argitaratu du Broken Brothers Brass taldeak. Horretarako, Gorka Urbizu bera izan dute alboan.

Joan den uztailean, kontzertu gogoangarria egin zuen Lekunberriko taldeak Kobetamendin 20.000 lagunaren aurrean eta gonbidatutako



hainbat musikari alboan izan zituen, tartean Broken Brothers Brass Band. Talde horrek zabaldu zuen kontzertua eta, besteak beste, “Maravillas” abesti ezaguna jo zuen.

Gau hartakoa ez zen pasadizo hutsean geratu, ordea, eta orain kantu horren bertsioa grabatu du taldeak Gorka Urbizurekin batera.



> Gatibu, «Bixotzetik»



Hogei urteko bizipenak NAIZ+ atarian ikusgai dagoen bideo-klipean laburbiltzen saiatu dira Gatibuko kideek.

Gernika-Lumoko taldeak hogei urte beteko ditu aurten, eta urteurren bira antolatu du eta Datorren zapatuan, martxoaren 28an, hitzordu berezia du Bizkaia Arenan. Bertan kontzertu erraldoia izango da, Gatiburen kontzertua, baina taldearekin zenbati musikari



gonbidatu ere agertuko dira taula gainean.

Hogeigarren urteurrena ospatzeko, hogei urte horiek gogoratzeko, kanta bat sortu dute: «Bixotzetik». Taldearen historia laburbiltzen du kanta berriak, bai haren musikak, bai haren hitzek. Izan ere, taldeak jo izan dituen erritmo edo musika motak igar daitezke doinuetan, eta taldearen historia letretan.

> La Pollaren kontzertu bat, bertan behera Txilen

La Polla Records taldeak otsailaren 16an Txileko Santiagoko Floridaren Bigarren Mendu-erreneko Estadioan egin zuen biraren azken kontzertua oso gaizki amaitu zen. Ikusle batzuek agertokia inbaditu zuten eta antolatzaileek, Aguraingo bandaren adostasunarekin, kontzertua bukatutzat ematea eta, hartara, edozein gorabehera saihestea erabaki baitzuten.

Errezitaldia normaltasunez egiten ari zen, baina bertaratu-tako bakan batzuek agertokira



igo eta mikrofonoak hartu zituzten. Kontzertuan zeuden gainerakoek txistu eta oihu bidez gaitzetsi zuten jarrera hori, eta botilak eta hainbat objektu jaurti zizkieten agertokian zeudenei, jaits zitezen, baina ez zen halakorik gertatu, sare sozialen bidez zabaldutako bideoek erakusten duten bezala.

Sareen bidez, hain zuzen, haxe adierazi zuen Aguraingo taldeak: «Izorratu da! Ilusio handia egiten zigun, baina gauzak okertu egin dira».



> «Teloia», Liher taldearen lan berriaren singlea

Liher taldeak otsailaren 28an estreinatuko du bere hirugarren diskoa, «Hemen herensu-geak daude» izenekoa. Diskoaren grabaketa prozesua NAIZen webgune berezian jarraitu ahal izan genuen joan den astean. Izan ere, Vilafranca del Penedeseko (Bartzelona) Cal Pau masian izan zen NAIZ asteazkenetik igandera bitar-



tean, grabaketa bertatik bertara jarraitu eta haren berri emateko.

Esan bezala, datorren astean estreinatuko da taldearen hirugarren lan luze hori, baina zazpikiek, eta edonork, badute diskoaren aurrerapen bat entzuteko aukera, diskoaren lehen singlea, hain zuzen: «Teloia». NAIZ+en, bideo-klipa.



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Bizitzako sorpresa atseginak

Oraindik asko dira Londresen Euskal Herrikoa naizela esaten didanean, ea katalana hitz egiten dudana galdetzen didatenak. Ez

da orokorrean ezjakintzat kontsideratuko nuen jendea, guztiz kontrakoa, perspektiba zabalekoak dira, erreferentzia askokoak eta gehienak Euskal Herrian behin baino gehiagotan izandakoak. Baina, agidanez badago hor blokeo mental moduko bat, edo desinteres bat ziurrenik,artzelona katalanarekin eta Donostia sukaldaritzarekin baino haratago asoziaziorik egiten ahalbidetzen ez diena.

Haien sentsibilizazioa oraindik gehiago ahultzen duena ordea, nire alabari hitzen bat edo beste gaztelaniaz luzatzen diodanean eta ulertzen ez duela ohartzen direnean azaltzen duten harridura da. Nire arrazoiak azaltzean, ulertzen dutela egiten esaten didaten arren, haien aurpegiko eszeptikotasunak garbi ondorioztatzen du ez direla azaleko hausnarketa urratzen ere hasi. Alegia, gaztelania da munduan hitzun gehien dituen hizkuntzetako bat. Hori da, zalantzarik gabe, une horretan buruan darabilten pentsamendua.

Gure Euskal Herri txiki partikularra osatu dugu auzoan; Donostiako familia bat ehun metrora bizi da, bi seme-alabekin haiek ere, eta, auzoan dauden hogeita bat eskoletatik, kasualitatez leku berdina aukeratu dugu gure haurrentzat; nirekin Lizeoan ikasitako lagun bat eta bere familiak ere auzo bera aukeratu dute Londresen bizitzeko (elkarren pista galdua geneukan urtetan zehar eta kasualitatez aireportuan topo egin genuen behin); ia astebururo joaten garen kafe-etxearen ondoko dendan ondarrutar batek euskara “ezberdina” egiten duela ohartu da nire alaba; eta, bada beste familia

bat ere haiek euskaraz hitz egin ez arren, haien seme-alabek hitz egin dezaten interesa dutenak.

Gogoko ditut kasualitateak eta bizitzak ekartzen dituen sorpresak...

Lael Wertebaker amerikar kazetaria ezaguna egin zen batez ere Hitlerren garaiko Alemaniatik albisteak zabaltzeagatik, garaiko propagandak “emakume arriskutsutzat” izendatua, bere kazetaritza eraginkorra New Yorkeko “Time” egunkarian argitaratu zuten.

Hemingwayri buruz batzuetan esan ohi da bera izan zela Euskal Herriari buruz munduan zehar albisteak zabaltzen zituen lehenengoa. Wertebakerrek idatzitako eta duela gutxi berargitaratu den “Death of a man” izenburuko liburuan dioen bezala, ez zen Hemingway izan ordea, beraiek –Wertebaker eta bere senarra– izan ziren lehenengoak. Are gehiago, hainbeste gustatu zitzaizen Euskal Herria,

Ziburun bizi izan zirela hainbat urtetan zehar. Orson Welles film zuzendaria laguna zuen Wertebakerrek eta hark Euskal Herriari buruz egin zuen dokumental batean elkarrizketatzen zuen eta han egiten zituen Ziburu eta Euskal Herriari buruzko hainbat hausnarketa.

Wertebaker emakume aparta izan zen, historian leku sonatuagoa merezi duena zalantzarik gabe. Baina horri buruz beste batean idatziko dut. Orson Wellesen dokumental hartan azaltzen zen lau urteko neska lotsati bat, Wertebakerren alaba, bere lagunekin Ziburuko plazan jolasean. Neska hori da Londresko nire “Euskal Herri partikular” horretako azken gehigarria. Bere haurtzaroko urte haiek hain urrats sakona utzi zioten, hirurogei urtetik gora zituela hasi zela euskara ikasten. Eta, nola ikasi ere... Gogoko ditut kasualitateak eta bizitzak ekartzen dituen sorpresak... •



Lael Wertebaker, Orson Wellesen «The Land of the Basques» dokumentalean.

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



Felipe MANTEROLA | FELIPE MANTEROLA FUNTSA. LABAYRU FUNDAZIOAREN ARGAZKI ARTXIBOA

FELIPE MANTEROLA, ARGAZKIAK EGITEA MAITE ZUEN ZEANURITARRA

Felipe Manterola Zeanurin jaio zen 1885eko maiatzaren 1ean. Oraindik nerabe zela, eta aita hil ondoren, bere amak gobernatzen zuen tabako-dendan sartu behar izan zuen lanera. Urte batzuk geroago topaketen eta solasaldien leku bihurtu zen gune hori. Lan hori Barazarreko porturaino doan linean kobratzaile eta autobus gidari izatearekin uztartu zuen gaztaroan.

Argazkilari afizionatu honek egin zituen lehenengo irudiak 1904 ingurukoak dira. 1936ko gerra zibilaren eztandaekin, etena gertatu zen. Bere argazki dokumentaletan beti agertzen dira bizilagunak, jaioterriko gertaerak, paisaiak, baserriak eta bizitza erlijiosoaren hainbat alderdi. Sarri eskatu bazioten ere argazki-gintzako hainbat lan egiteko, ez zen inoiz profesional gisa aritu. Bere lana garaiko aldizkari eta liburuetan argitaratu zen, hala nola "Novedades" astekari grafikoan, "Euzkerea" aldizkari hainbat azaletan 1929 eta 1936 bitartean, Eusko Folklore elkartearen urtekarian (1925-1926), "Euzkadi" egunkarian edota 1921eko Euskal Herriko Geografia Orokorrean. Era berean, 1924 inguruan Alemanian hamabi postal argitaratu zituzten bere irudiekin.

Alboko argazkiak benetakoa dirudien arren, umea putrearen atzaparretatik askatu nahian ikusten den irudia fotomuntaia bat da. Bertan Manterolak bide ematen die hegazti harrapariek haur txikiei eta aziendari erasotzen dietela esaten duten kondairei.

GAIXO DAUDEN

TXUS MARTIN ETXERA!

GARA URTEKARIA 2019

Protesta urtea



historia egin duten dokumentuak,
grafikoak, kronologiak, datuak
eta irudiak

216 orrialde, oparo irudiztatuta

Gaindegia-ren kolaborazioarekin

Euskal Herria 2019 Erradiografia sozioekonomikoa

Demografia, Ekonomia eta Gizartea

#ExpolioGARAri kazetaritzarekin
ere egingo diogu aurre



Hilaren 22 eta 23an,
larunbat eta igandean,
kioskoetan

11,95€
soilik

*
Harpidedunentzako
eskaintza berezia
8,95€

GARA

* Erreserbatu zure alea 94 424 55 56 telefonoan (9:00-15:00)
edo jasoko duzun e-mailari erantzunez. Etxera bidaliko dizugu,
bidalketa gasturik gabe.

